



L


E


Z


O

17

Pasaiako Badia 1636an Gandolfo, Teixeira eta Sotto injinari militarrek egindako planoaren arabera









**«Lezo» 17
1997.ko Maitza**



Azalaren egilea: Pasaiako Badia 1636 Gandolfo, Teixeira eta
Sotto injinari militarrek egindako polanoaren
arabera.

Fotokonposaketa eta Inprimaketa:

AN^tzA Industrialdea, 2
20160 Lasarte-Oria

- AURKIBIDEA -

HITZAURREA	9
------------------	---

HISTORIA

1.- Lezoko zenbait gertaera eta beste JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN	11
---	----

KULTURA

1.- Zuberrotarrak Lezon JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN	15
2.- Fue hace seis años: Homenaje popular a Polentzi Gezala RAFA BANDRES	19
3.- Euskal Idazleak Lezo Herri Eskolan ANE MUGARZA	22
4.- Non haiz, Bizar Zuri pirat? JOXE LUIX AGIRRETXE	23

GIZARTEA

1.- Luis Mari Etxart. Lezoar bat arraun munduan maisu JOXE JUAN UGALDE	25
2.- Delineante de profesión y dibujante por afición, Xabier Salaberria, Salaberriar RAFA BANDRES	29
3.- Lezo Herria LEZO HERRI ESKOLA, 3. MAILA	33

EKOLOGIA

1.- Urritza LEZOKO EKOLOGI TALDEA	37
2.- Autobiaren aurka ezin etsi LEZOKO EKOLOGI TALDEA	38

SAIOAK

- 1.- 36ko gerraren mistika abertzalea
ZABARREKO..... 51
- 2.- Lezoko Toponimia (I)
LANDER ZURUTUZA 56

LITERATURA

► IPUINA

- 1.- Haur eta gaztetxoek literatur lehiaketak 1996
LEZOKO UDAL LIBURUTEGIA..... 61

► BERTSOA

- 1.- Korrika
ANE MUGARZA 65
- 2.- Baloia
ANE MUGARZA 65
- 3.- Urtaroak
ANE MUGARZA 66
- 4.- Zoroa eta Zozoa
AITOR SANTOS 67
- 5.- Mundua
JURGI URTIZBEREA..... 67

► POESIA

- 1.- Leteko azken artzaiari
JOSEBA 68
- 2.- Eliza Zaharra
MUNTTAR 69

► IPUINAK

- 1.- Zelaibeltzetako akelarren
INAXIO ETA LUPE 70
- 2.- G.A.L.tzailea
ARKAITZ AROZENA SALABERRIA..... 73

HITZAURREA

Udaberriak ez du huts egiten, eta gure zelaietako lore guztiekin batera Lezo Aldizkariaren ale berri hau loratu da. Luze jo du azken loraldia izan zuenetik, izan ere, irailan kale egin zuen. Ugari izan dira, idazle eta irakurle, hutsaz galdegin dutenak eta horrek, ezer baino poztu egin gaitu. Barka ezazue bada, irailekoa, barka ezazue idazleek batez ere, ilusioz lanak prestatu eta gure esku jarri zenituztenak. Irailan, ordea, lan gutxiegi genuen esku artean eta, lore gehiago biltzeko asmoz, udaberrira bitartean zain egotea erabaki genuen. Eta hemen dituzue bi uztak. Hurrengo alerako lanak dagoeneko biltzen ari gara, beraz, ez gehiago itxaron eta bidali.

Aberatsa duzue ale hau, aurreko guztien bidetik, herriko idazleen luma oparoaren lekuko, gustoko izango duzuelakoan gaude.

Ez genuke, ordea, sarreratxo hau amaitu nahi, gure artetik galdu berrian dugun Marc Legasse aipatu gabe. Lezoko herriari haurtzarotik lotua, ez dugu ahaztuko bere azken bisitaldian adierazi zigun indarra eta bizi-grina, biziari eutsi nahi dion herriaren ernamuina. Eskerrik asko, Marc.

Lezo, 1997, apirilak 24.

O“LEZOKO ZENBAIT GERTAERA ETA BESTE”

1.- EUSKARA

Lezoko hastapenetako biztanleriarengan hiru giza talde haundik hartu zuten parte: baskoiak –lehenengoa eta ugariena–, barduliarrak, eta gaskoiak. Bi lehenengo giza taldeak euskaldunak ziren, baina euskalki ezberdinetakoak, baskoiak goinafarreraz mintzatzaren bitartean, barduliarrak gipuzkeraz mintzo baitziren. Honela izaki, Lezoko euskara beti goinafarreraren barruan sailkaturik izan da, zehazkiago oraindik, Iparraldeko (edo Gipuzkoako) goinafarrera izeneko azpieuskalkian. Talde berean sartuta dago aldameneko herrietan Irun, Hondarribia eta Oiartzunen alegia, hitz egiten den euskara. Erreterian eta Pasaia, garai bateko barduliarren lurak izaki, gipuzkeraz mintzo dira. Lezorekin mugatiar diren bi herri hauen euskarak bere eragina eduki du ere Lezon hitz egiten den euskararen baitan, Lezoar goinafarrerari gipuzkoar kutsu eta doinua dariolarik.

Gaur egun, lezoar biztanleriaren %65a euskalduna da, eta euskalduntze-alfabetatze garapenerako Lezok badu gaur AEKren euskaltegi bat, Oroitzene izena duena, eta udalarekin kontzertaturik dagoena.

2.- UNTZIOLAK

Garai batean Jaizkibel mendia basoz josirik zegoenez, Lezon, adalmeneko herrietan gertatu zen bezalaxe, untziolek oso garrantzi handia hartu zuten herriaren izate sozio-ekonomikoan. XVI. mendean eraiki zen Lezon egon den untziolarik aipagarriena: Port de la Borda (gaskoieraz seguru aski) edo Bordalaborda izenekoa. Bertan galeoi eta bestelako itsasuntzi asko egin zirelarik. Badirudi, espainiar “Itsasarmada garaiezina” izeneko untzi asko, lezoar erret untzioletan eginak zirela.

3.- BALEARRANTZA

Lope Martinez Isastik, XVII. mendeko lezoar historiagileak, bere liburu mardulean balearrantzaren berri ematen digu, eta berak dioenez, euskal balearrantzaleek (eta beraien artean lezoarrek) Islandia, Norvegia eta Ternuako itsasoetara joateko zeukaten ohitura zahar zaharra zen. Badirudi balearrantzak oso garrantzi handia hartu zuela XVI.

eta XVII. mendeetan, geroxeago XVIII. mendean erabat desagartzeko. Lezori dagokionez hauxe da daukagun lehendabizikoenetako daturen bat: "1.570. urtean JOANES LEZOKOaren untzia Ternuako uretan hondoratu zen. Tripulazioa salbatu zen izozmendi baten gainean, eta bertatik erreskatatu omen zituen ondoren beste untzi gipuzkoar batek. 1572.ean, Hondarribiko Joanes Landagorrietak lau txalupa saldu zizkion JOANES LEZOKOari hogeitukateren truke. Salmenta Labrador penintsulako Chateau Bay badian (gaur egun daraman izena) gauzatu zen".

4.- KORTSOA

XVII. mendeko erdialdean Lezoko kortsariak, euskal kostaldeko beste herrietakoek bezala, frantses, espainol, ingeles eta olandresen merkatal untzien erasotzeari ekin zioten, oso etekin haundiak ateraez. Lezoar kortsariak itsasgizon trebeak izaten ziren makailu edota balearen arrantzan hamaika aldiz ibilitakoak. Horietako bat dugu Leon Iriberrri. Kortsari hau Ameriketara ibilia zen Paskual Atotxaren untzietan. Apaizartza baserriaren inguruan lurrak zituen. Bere emaztea, Mariana Arrillaga, Lezoko tabernaria zen. Itsasoan galdu zen 1.662.ean, Cadizerako bidean, Frantzisko Etxebestek berriz, kortsari bezala, beedore kargua eduki zuen eta balearrantzale bezala, kondestablearena. Lezon hil zen 1733. urtean.

5.- ITSASARMADA GARAIEZINA

1688. urtean Espainiako Felipe II. erregeak, Ingalaterra konkistatzeko asmoz gero "Itsasarmada Garaiezina" goitizenez bataiatu zutena bidali zuen. Izugarria zen, eta bertan, euskaldunek espainiar koroarekin zuten hitzarmena zela eta, Bizkaiko eta Gipuzkoako flotak bidali zituzten. Itsasarmadaren porrota ikaragarria izan zen, eta hildakoak oso ugariak. Lezok sei gizon galdu zituen: Joan Zabalaga, Migel Iñurrutzu, Martin Aurella, Hernando Araneder, Joanes Joanmartindegikoa -Gaintxurizketan dagoen izen bereko baserriko semea- eta Tomas Apaizartza -izen bera daraman gaintxurizketar baserrikoa- Sei heriotz hauen ondorioz zenbait lagun gelditu ziren pobrezian, inolako diru iturri edo sostengurik gabe: alarguntsa bat, bi umezurtz, lau guraso edadetu eta zehaztu gabeko beste bi senide.

6.- SANTIAGO BIDEA

Ondotxo dakigunez Santiago bidea Nafarroa Beheretik sartzen zen Euskal Herrian, gero Orreagatik, nagusiki, Nafarroa Garaira igarotzeko eta lizarraldeko eta Erriberako bideetatik barne gure Herritik irteteko. Baina bide nagusi honez gain ba omen zeuden beste bi zeharkako bide: kostaldekoa, eta Gipuzkoa eta Bizkaiko barnekaldetik igarotzen zena. Bi azken bide hauek Lezora hurbiltzen ziren, eta badirudi Gurutze Santua oso loturik egon zela erromesen mugimendu honekin. Jakin badakigu Gaintxurizketako zenbait baserrian zerbitzu laguntzaileak antolatu zirela, baita Gurutze Santuaren basilika berean ere, kapera izateaz gain erromesentzako ostalua eta ospitalea baitzeuden.

7.- VICTOR HUGO ETA LEZO

Danok ezagutzen dugu zein maitea zuen Victor Hugo idazle frantsesak gure Euskal Herria. Bereak dira dagoeneko famatuak diren honako esaldiak: "Hau ez da Espainia eta hau ez da Frantzia, hau Euskal Herria da", "Euskaldunen aberria euskara da, ia esango nuke euskaldunen erlijioa dela". "Euskal Herria Pirineetako bi aldeetan dantza eta kanta egiten duen herria da".

Euskarak liluratu zuen, karlistak harritu eta Euskal Herriak maitemindu. Baina Euskal Herri gehienak aipamen ederrez deskribatzen dituen bitartean -aldamenean dugun Pasai Donibane kasu- Lezorentzat ez zituen oso hitz politak izan. Lezon, emakume guztiak zaharrak, itsusiak eta narratzak ikusten ditu, etxeak eta etxe barruak zikinak, ... Joxe Azurmendi saioegileak dionez, Lezo izan zen Victor Hugorentzat Euskal Herriko alde txar guztien sinboloa, eta Pasaia berriz, alde on eta baikor guztiena.



Derolaude eta Victor Hugo, azken hau Pasai Donibanen, bizi izan zen etxearen aurrean.

8.- KARLISTADAK

Bi gudate karlistetan Lezok parte handia hartu zuen karlisten alde. Familia guztietatik abiatu ziren mendietara. Eta bi gudateak galdu zirenez asko eta asko izan ziren zapalketa- ren azpian eroritako lezoarrak. Anekdotak gisa aipa dezagun Santa Krutz apaizaren partidakoa zen OILARRA izenekoak armen zulo bat zeukala Jaizkibeleko leku ezkutu batean. 1873ko urtarrilaren 13an Joxe Mari Olaiozola, Joxe Mari Lopetegi, Frantzizko Salaberria eta Joxe Iñazio Garmendia lezoarrak preso eraman zituzten Donostiara karlisten aldekoak zirela argudiatuz. Badirudi plazako tabernan muturra berotuta, Gora Carlos VII ohiukatu zutela. Darietako gotorlekutik liberalek makina aldiz bonbardeatu zuten bai Errenteria eta bai Lezo. 1875eko azaroaren 10ean eta 11ean oso borrokaldi gogorak izan ziren Lezon bi taldekoen artean. Bukatzeko aipatu beharra dago ere galtzaileen zenbait etxe eta ondasun enbargaturik eta enkante publikoan saldurik izan zirela, beraien artean: Patxillaborda, Borda, Babilonia, Lopene eta Sagasti baserriak.

9.- SAGARDOA

Kontatzen denez, Lezo garai batean sagarrondo z betirik omen zgoen, Jaizkibelego magaleak gehienbat. Itsasoaren hurbiltasuna eta kokapen geografikoa ezin hobeak ziren Lezoko sagardoaren kalitatea bermatzen zuten bi faktore naturalak. Bazegoen gainera LEZO izena zeraman sagar mota, oso apreziatua izaten zena, eta Ijurkoko aldetik Gaintxurizketako kaxkoraino gehien ikusten zena. Garai batean lezoar sagardotegiak oso ugari eta ospetsuak izan ziren. Gaur zenbait baserritan ezik, ia ez da sagardorik egiten.



(Lezoko Erromeria - 1.890)

Garaiko marrazki honek 1890.eko Lezoko erromeriaren berri ematen digu.

11.- LEZOKO ETXE IZENAK

Euskaldunon ohituren artean betidanik eduki dugu etxeei izena ematekoa, agian "Den guztiak izena du" dioen atsotitzari kasu eginez. Lezon tradizioak bizi bizirik zirauen eta horregatik udalak egurrezko txartel izendunak jartzeari ekin zion, eta gaur 79 etxek daramate aurrekaldean bere izen zaharraren berri ematen digun zurezko txartela.

Joseba Aurkenerena Barandiaran

10.- LEZOKO ERROMERIA

Iraileko 13-14 bitarte oso erromeria ospetsua izaten zen Lezon. Gurutze Santuarekiko debozioa oso haundia zenez zazpi euskal herritan, 30.000 lagun bildu egiten ohi ziren. Oso festa haundia zen, eta oso koloretsua, musikariak, trikitrilariak, dantzariak,... joaten baitziren.



Lezoko Erromeria, iraileko 13-14an ospatzen zen, eta oso ospetsua zenez, Euskal Herri osotik etorritako 30.000 lagun inguru biltzen omen ziren.

ZUBEROTARRAK LEZON

1996ko Mendekozte Jaiak, urtero bezala, ekitaldi eta kultur gaiez beterik etorri zitzaizkigun, baina baze goen gauza berri bat, maiatzeko hogeita seian –igandea– ospatu zen Zuberoaren Eguna. Zuberoa guretzat, beti urrutiko gauza izan da, urrutikoa eta exotikoa gainera, Benito Lertxundiren diskoetako kantu zoragarrien lurralde mitikoa. Eta bapatean Zuberoa guregana etorri zen, bere mozkinak eta bere seme-alabak gure artera bertaratzuz.

Hamaika eta erdiak inguru azaldu ziren herrian, eta hamabietarako dantzan ari ziren gure kaleetan zehar. Auñamendietan, edo beraiek esaten duten bezala Borthuetan, kokaturik dagoen Larrañe herriko



Larrañeko dantzariei ttikitatik datorkie dantzarako sena.



Zuberoa, euskal lurralde magikoa, maskarada eta pastoralen herrialdea.

dantzariak ziren. Herri honek 200-300 arteko biztanle ditu gaur, baina duela hogeit bat urte 1.000 inguru zituen, eta Zuberoa osoa pairatzen ari den despopulazioaren lekukotzat har genezake.

Larrañe herri euskalduna dugu, zuberotarra goitik behera, izadiarekin arrunt lotua, Borthuetan kokatua, Iratiko oihanean, Orhi mendiko gerizpean. Euskal Herriko gailurrik haundienak: Auñamendi, Hiru Erregeen Mahaia,... oso urrun ez dituen herria. Bertan dira Holtzarteko zubi ospe-

tsua eta baita Kakhuetako arroilak ere. Jaungoikoak berriro paradisua egin beharko balu, Larrañen egingo luke segur aski.

Larrañeko Sallan sortua izan zen bestalde, Jean Batixte Borthiri-Salla izeneko koblakaria (bertsolaria zubereraz) (1889-1974) bere bertsoetan bere sorlekua zen Larrañe eta 1914ko gerra (lehenengo mundu gerra) horren maisuki kantatu zizkiguna. Ikus ditzagun Larrañeri eskeinitako lehenengo lau bertsoak.

- 1.- *Bere sor lekhiari bethi zerbait zor da
Nik eman nahi deiot bizpa hirur kobla;
Etxe xuri ttipi bat aldian bi borda,
Han irus igaran düt ene haur denbora.*
- 2.- *San Josef an oihana eta Erroimendi,
Arratako bixkarra, bai eta bürkhegi,
Oro ageri dira ene etxondoti,
Udan berde berdia, negian aldiz xuri.*
- 3.- *Hurreko egün goxuk xokho maite hortan,
Nik igaran izan tüt mendiaren zolan,
Aita ama huneki, oro laborantxan,
Ni bosgarrena nintzan hamar aurkhidetan.*
- 4.- *Hurreti gust banian breset berrietan,
nula aita guriak goldenabarretan;
Errabian beharrez ari lan orotan,
Fantasia banian salbü artho jorran.*

Horrela zen Jean Batixta Borthiriren haurtzaroan Larrañe, eta gaur egun oso antzekoa dela esan genezake. Horrelakoa da Larrañe, urrutiko Larrañe zuberotarra, baina maiatzeko 26an larraintarrak gure artean zeuden, Lezon, kantari eta dantzari.

Baina gaurko larraintarrak ez dira makalak ez, dantzariak, kantariak, laborariak, artzainak, goitik behera zuberotar eta euskaldun izateaz gain, guztiz euskaltzale eta kementsuak ditugu. Eta honela euren barneko euskaltzaletasunari jarraituz, 1991ko agorrilean



Hauxe da Larrañe, Lezora etorritako dantzari eta kantarien kabia.


(abuztuan) Xalbadorri eskeinako pastoral zoragarria jokatu (antzeztu) zuten, Zuberoa osoan ohitura den bezala, herri osoak parte hartu zuelarik. Urte hartan, umeak zirenak, eta pastolarean aingerutxo bezala atara ziren asko, Lezon eduki ditugu neska-mutil bilakaturik, eta dantzari trebeak eginik.



Orhi mendiak ematen dio gerizpe Larrañeko herriari.

Jakin badakigu ere, 97ko maskarada beraiek egingo dutela, eta ez dietela inolako inbidirik izango 96an Muskildi eta Mitikile herriek jokaturakoei, larraintarrek egunez egun erakusten baitigute dantzari eta kantari iaio eta finak direla. Hauek ziren bada, Mendekozte Jaietan, maiatzeko 26ko igandean gure artean, gure kaleak eta plazak alaitzen, eta zuberotar oihartzunez betetzen, kantuan eta dantzan zebiltzan neska-mutilak.

Kalez kale eta plazaz plaza ibili ondoren, dantzari larraintarrek bi saio eder, bat goizez eta arratsalde bestea, eskeini ziguten Gurutze Santuaren Plazan, Zuberoako dantzan magiaz eta edertasunaz gure bihotzak gainezkaturik: "Barrikada", "Aintzina pika", "Satan Dantza", "Brailia", "Godalet Dantza",... eta halako beste hamaika gehiago, bata bestearen atzetik dantzaturik. Bazkaldu eta afaldu "Tiñelu" elkartearen egin zuten, beuren kantuez gure bazterrak gozatu zituztelarik. Arratsaldeko seiretan Tiñelu Elkartearen antolaturiko Sagardo Festa politean eta sagardo turrutaden artean Zuberoatik ekarritako mozkinak: ahatekia, txintxua, gazna, patea,... eskeini ziren. Eta ondoren 8.30etan, zuberotar festa honi amaiera jatorra emateko, Niko Etxart, Dominik Etxart -bere aita-, eta Rober Larrandebürük "a capella" abestu zuten Zuberoako kanturik onenak gure belarrietara



Larrañeko izadia eta paisaia xarmagarria da. Hona hemen, lekuko gisa, Holtzarteko zubi miresgarria

ekarritara. Ekitaldi osoa hunkigarria izan bazen, hunkigarriagoa oraindik bukaera, hoguei bat zuberotar plazan zegoen oholtzara igo baitziren lehen aipaturiko hiru abeslariekin batera, "Agur Zuberoa" sentikorra, agur moduan kantatzen. Zoragarria benetan!



1991ko abuztuan Larrañeko herriak
 "Xalbador" Pastoralak jokatu zuen.
 1997ko maskarada bere eskutan egongo
 da eta baietz laster beste pastoral bat
 jokatu? Hortarako baditu dantzari eta
 kantari onak!



«Agur Ziberua bazter
 güzietako xokorik
 eijerrena, agur sor-lekia!
 zuri ditik ene ametsik
 goxuenak»

96ko maiatzaren 26an eduki genuen bai larraintarrek eta bai lezoarrek besteon berri, elkar ezagutu genuen, elkarrekin abestu eta dantzatu genuen, elkar gehiago ezagutzen jarraitu nahi genuke. Buka ditzadan nire lerro hauek egun xarmangarri honen antolatzaileak izan ziren Lezoko AEK eta Lezoko udala zorionduz, eta Larrañeko herria berriro gogoraraziz, beraiek horren goxoki abesten duten kantuz.

– Argizagiak argitzen düzü
 gaüa zohargi denian.
 Ene maitia ikusi nüzün
 dantzan plazaren erdian,
 izar batek bezala
 argitzen züzün
 beste ooren artian.

Besarkada beroa Larrandebürü-Etxart familia osoarentzat, Rober, Katti, Joana eta Beñatentzat eta musu haundia beti gazte irauten jakin izan duen amañirentzat. Eskerrik hanitx eta izan untsa. Biba Xiberua! Biba züek!

Joseba Aurkenerena Barandiaran

Fue hace seis años: Abril 1991

HOMENAJE POPULAR A POLENTZI GEZALA

(V Semana pedagógica musical de Lezo)

A petición de algunos vecinos que en abril de 1991 escucharon nuestras informaciones sobre el homenaje a Polentzi, reproducimos a continuación, tal y como se dieron a través de Radio San Sebastián "LA SER" nuestros tres comentarios sobre dicho homenaje enmarcado dentro de los actos programados en la "V SEMANA PEDAGOGICA MUSICAL" que anualmente viene organizando en Lezo el Conservatorio Municipal de Música, precisamente este año de 1996 se ha cumplido el X Aniversario de estas semanas pedagógicas, y lo hacemos en la confianza de que queden complacidos, ya que no añadimos nada a lo que entonces se dijo, y, por lo tanto puedan faltar algunos entrañables detalles que entonces por problema de espacio no fueron recogidos en dichas crónicas, que dábamos sobre las siete de la tarde, veamos:

– El lunes 22 de abril de 1991, nuestro comentario fue el siguiente: "Con el cariño sincero que ponen los pueblos pequeños a las grandes cosas que saben ofrecernos como si se tratara de la más natural, así de sencillo, el pasado viernes, nos presentaron a los informadores la programación de la "V SEMANA PEDAGOGICA MUSICAL" que anualmente organiza en Lezo el Conservatorio Municipal de Música, una semana en la que desde ayer domingo y hasta el viernes 26, el alumnado de este Conservatorio es capaz de presentar al público que le va a escuchar el fruto de su trabajo, la labor de su profesorado y la realidad del Conservatorio, con más de 70 matriculas.

El acto fue presentado por el actual alcalde Mikel Arrizabalaga Pikabea, junto con Patxi Intxaurrendieta y Santi Espina, responsables del Conservatorio junto con representantes de los Padres de Alumnos y la presencia del lezotarra que con el txistu ha recorrido el Mundo entero desde hace 40 años, Polentzi Gezala de 71 años y su hijo, también músico, Jon Mirena. Emotivo acto que finalizó con unas breves palabras de agradecimiento del emocionado Polentzi, en la Sala de Plenos del Ayuntamiento de su pueblo.

Ayer domingo, se abrió el programa, con un homenaje popular a Polentzi Gezala. Lezo se vistió de fiesta, con kalejira a cargo del Grupo de Txistus de Lezo, y al mediodía, Grupo de Txistu con trompetas, dantzaris, familiares y muchos lezotarras al pie del portal de su antigua vivienda en la calle Mayor, hicieron que a Polentzi le resbalaran más de una lágrima, junto a su esposa e hijos... y le acompañaron hasta el Ayuntamiento donde le esperaba más público, gente del pueblo, txistularis de diversas localidades, el alcalde y concejales de HB y PNV, con los que presencié algunos bailes de los dantzaris desde los arkupes del Ayuntamiento, y recibieron sendos ramos de flores, subiendo al Salón de Plenos, donde tuvo lugar un acto-homenaje entregándole el alcalde una artística bande-

ja de plata con el escudo de Lezo, un txistu y tamboril, con una dedicación-recuerdo de este homenaje realizado artísticamente por el joyero renteriano Antxón Ayestarán.

Pasando acto seguido al Santo Cristo de Lezo, a la Basílica, donde tuvo lugar un concierto a cargo del Otxote Itxaropena, Grupo de metal del Conservatorio, el bertsolari "LEXO", siguiendo la comida popular con la que se cerró esta emotiva jornada, con la que LEZO abrió su "V SEMANA PEDAGOGICA MUSICAL".

Hoy lunes, luego a las ocho, en el Santo Cristo de Lezo concierto denominado "EL PUEBLO DE LEZO CON LA MUSICA DE TOMAS GARBIZU", a cargo de la Coral Santa Cecilia de Donostia que dirige Andoni Sierra, y de la que fue director el renteriano Iñaki Goñi, Polentzi Gezala con el Txistu y al órgano su hijo Jon Mirena, que no dudamos resulte pequeña la Basílica, luego a las ocho.

Y, es, que los lezotarras, celebran con entusiasmo y con su asistencia a los conciertos esta "V SEMANA PEDAGOGICA MUSICAL".

- El martes, 24 de abril de 1991 decíamos:

"Tras la magnífica interpretación del "Agur Yaunak" por la Coral Santa Cecilia de Donostia dirigida por Andoni Sierra, Polentzi Gezala con el txistu, su hijo Jon Mirena al órgano y el público que abarrotaba la Basílica del Santo Cristo, unido a la Coral, pasadas las nueve y diez de la noche, todos en pie aplaudiendo a rabiar y sin ganas de abandonar la Basílica, como deseando que aquel gran espectáculo musical continuara y no terminara nunca. Momentos antes Polentzi Gezala paseó abrazado a Liborio, hermano del fallecido compositor lezotarra TOMAS GARBIZU, entre el entusiasmo de los asistentes y recibiendo los Gezala, padre e hijo, una cerámica como recuerdo de esta V SEMANA PEDAGOGICA MUSICAL DE LEZO, de manos del emocionante Liborio Garbizu. Así, puede decirse, que finalizó el concierto de ayer lunes, que comenzó a las ocho de la tarde con una primera parte a cargo de La Coral Santa Cecilia donostiarra dirigida por Andoni Sierra, que interpretaron diez canciones, algunas de ellas del errikoseme TOMAS GARBIZU y que fueron fuertemente aplaudidos teniendo que alargar la Coral su actuación con una canción más de las programadas.

En la segunda parte, Polentzi Gezala se recreó con el txistu, muy bien acompañado al órgano por su hijo Jon Mirena, ofreciéndonos seis interpretaciones fenomenales desde lo alto del Coro de la Basílica, que fue todo un delirio de entusiasmo, abrazados y saludando desde el Coro, padre e hijo. Polentzi bajó hasta situarse ante el altar y ofreció él solo dos soberbias interpretaciones: un zortziko con variaciones y un "Autxo Seaskan" adornado con su peculiar y único estilo del dominio del txistu que seguiremos eternamente recordando como soberbio obsequio y la suerte de haberle escuchado... todo fueron felicitaciones y todavía siguen los comentarios, entre los asistentes, ensalzando al txistulari universal, como es Polentzi, y siguieron los abrazos entre amigos, lezotarras, familiares, etc... en Aiton Borda, Asociación de Jubilados, donde los organizadores del Conservatorio Municipal ofrecieron tras el comentado concierto un pequeño refrigerio hasta casi las once de la noche.

Aclaremos, que ayer al dar el número de matrículas del Conservatorio de Lezo, nos quedamos cortos, en la actualidad cuenta con 525 matriculas, siendo 17 los profesores encargados de impartir las distintas disciplinas musicales. El Conservatorio Municipal de Música de Lezo fue creado en Septiembre de 1986, curso 86-87 y naciendo ésta semana pedagógica musical, por lo que este año, curso 90-91 es la V Semana que se celebra. El concierto de hoy martes, será también en la Basílica del Santo Cristo, luego a las ocho, a cargo del Quinteto de Metales del Conservatorio de San Sebastián compuesto por catedráticos y alumnos. No se lo pierdan... Y, mañana miércoles a la misma hora y lugar a cargo de los alumnos del Conservatorio de Lezo: Grupo de Acordeones, Grupo de percusión y Coro Txinparta dirigido por Santi Espina”.

– Y finalmente con brevedad dábamos a conocer el jueves 25 de abril de 1991 lo siguiente:

“Recordamos, que en Lezo, siguen los diarios conciertos de su ambiciosa V Semana Pedagógica Musical, que finaliza mañana viernes: hoy, luego a las ocho, en la Basílica del Santo Cristo no cantará el Coro “DILUVIUM MUNDI” como estaba anunciado y lo hará hoy, y mañana viernes en el mismo lugar y hora la Coral Hodeirtz Txiki de Tolosa dirigida por David Azurza, actuando solamente mañana también, en la primera y segunda parte tras la Coral, el Grupo de Marionetas “KILI-KOLO” con un curioso cuento musical y dirigido también por David Azurza”.

Dejamos así estas tres reseñas dadas en su día, a las que añadir más nos parecería incorrecto, porque el comentario realizado en el instante refleja en parte la emotividad del homenaje y el recuerdo de aquella “V SEMANA” que tuvo como protagonista a un hijo de la Villa que tiene un hermoso paseo sobre la bahía y el puerto dedicado a él con todo el profundo cariño y reconocimiento de su pueblo a la expansión mundial que con el txistu ha divulgado el nombre de su txoko, formando un trio de hijos ilustres: con Tomás Garbizu con sus composiciones y Elias Salaverria con sus pinturas.

Rafa Bandrés


Nota: Ver la biografía de Polentzi en LEZO 6 de mayo de 1991 entrevistado por Juan Ugalde Ordoki.



EUSKAL IDAZLEAK LEZO HERRI ESKOLAN

Orain dela hilabete bat euskal idazleak Lezo Herri Eskolara etortzen hasi dira. Xabier Mendiguren ez da bakarra izan, Joxe Mari Iturraldekin ere izan du aukera. Guk, bera pozteko, "Estitxuk pirata izan nahi du" liburua irakurri genuen. Bere bizitzaren bitxikeri batzuk ere kontatu zizkigun esaterako, Txiki Begiristain bere gelan egon zela. Ordu pare bat gurekin egon zen eta oso ondo pasa genuen.

Ane Mugarza Huizi
11 urte



NON HAIZ, BIZAR ZURI PIRATA?

"Hire errautsetarik bakoitza sar dadiela handiki, zapaltzaile-faxista banaren ezkerreko begian eta egin diezola traba sekulako. Hala biz!"

Felipe Bergara

Martxoak 21, ostirala:


Kale Nagusia doinu, ahaire bereziz jantzirik nabari da, ez da arraroa izaten kale honetan musika entzutea baina gaurkoa ez da ohikoa, doinu malenkoniatsu eta aldi berean alaia iristen zaigu belarri-zuloetara kale honetan barna gabiltzanoi. Batetik tristura eta bestetik oldarra, sendiarazten digun ahaire saihestezina, hezur muinetaraino sartzen den horietakoa.

– Zer dun oi?

– Etzakiñet, Txerrimuñon aitzen ttun txalaparta jotzen, ta oixe izangoun ...

– Aa! Oixe izangoun, bai

– Alee, ez tun txalaparta bakarrik, beste zerbatte re aitzen dun...



Marc Legassen Idazle handiaren lezoar senideen bizilekua

Hauxe da goizean enkargutara atera diren etxekoandreen solasa. Denek aditzen dute zerbait, zer ordea? Kale osoan nabaritzen da doinu berezi hori baina pixka bat erreparatuz gero, ahairea Pikandia edo Jamot-enea etxetik heldu dela ohartuko gara. Kale Nagusiko 16.etik, alegia. "Artixtan bat etorri ote da itxiorta?" Kale honetan bada lehen ere txistulari, dultzainari, trikitilari eta abeslaririk baina txalapartari edo arpajolerik?

Egin Irratiko albistegiak argitu ditu kontuak, abertzale bezain gizon handi zen idazlea joan zaigu goizaldean, Euskal Herriko zeru gainean izar beltz bat piztutzero; Marc Légasse.

Martxoak 30, igandea (Aberri Eguna:)

Gaur, Aberri Egun honetan, hire errautsak Ibañetako lepoan, Orrian, hire lagunak, HAIZeri eta LURri eman dizkieten honetan, jakin ezak Jaizkibel magaleko hire Lezo kuttunak bizirik gordeko duela hire zuzia, iraupenaren, euskal izatearen zuzia. Aiton-osa-ba Gaudioso Zelaiaren arpa eta txalaparta astinduko ditiagu hautsak har ez ditzan eta

orain arte etengabe entzun den euskal doinua isil ez dadin. Euskal erresistentziaren sinbo-
loa haiz, korrante guzien aurka bada ere, iraun beharra dagoela erakutsi diguna, etsi gabe
eutsi beharra dagoela esan diguna, duintasuna eta izatea baitaude jokoan. Bakarrik geldituko
bagara ere, azkenerainoko erronka duk hau, izan ala ez izan.

Zainduko ditiagu hik hain gustuko hituen arpa eta txalapartaren doinuak, zainduko ere
euskal elea, herri honen arnasa. Karabinak eskuz esku ibiliko dituk askatasuna erdietsi
artean –Lezokoa hartu dik dagoeneko beste gazte batek–. Lezon, hire beste leku kuttune-
tan bezala, gudan biziko haiz, agure hori! Hi bezalako agure kaskagogor eta biziak behar
ditik herri honek, botereari begiko zakarrak baino traba handiagoa egiten diotenak. Hik
hemen, Andreoneko atalaian, behin esan huena ekarriko diat gogora, artean gaztetxoak
nintzen eta aski erranahi handikoa iruditzen zaidak: “Lezora, euskalduna, ez da honez
gero esku-haurrak elkartuta errezora etortzen, ukabila jaso eta borroka egitera baizik”.

Habilen tokian Lezoko kale-garbitzailea ikusten baduk emaitzikiok goraintziak gure par-
tez. Marc Légasse, Markox edo Marko Legatza, independentziaren egunean harrapatuko
dugun legatza! Egongo gattuk hi...

Joxe Luix Agirretxe




LUIS MARI ETXART

Lezoar bat arraun munduan maisu

Hondarribiko Arraun Elkartek Luis Mari Etxart lezoarra du bihotza. Urtetan arraunean aritu ondoren, Luis Marik, Hondarribira jo zuen eta bertako arraunlarien entrenatzaile eta elkarteko arduradun da gaur egun.

Lezokoak indartsu bihurtu du jendez urri aurkitu zuen elkartea eta horren adierazgarri dira AMA GUADALUPE-KOA traineruak azken urteotan lortu dituen emaitzak. Luis Marik eguneko ordu gehienak ematen ditu Hondarribian eta bertan Arraun Elkartek duen egoitzan hartu gaitu bere garaiko eta gaur egungo arraunaz hitz egiteko.



Nola sartu zinen arraun munduan?

Ba...sanjuandarrak etorri zitzaizkidan Lezoko frontoira. Hamasei urte nituen eta garai hartan eskubaloian eta pelotan aritzen nintzen. Ez nekien arrauna zer zen. Zer zen frogatzera joan eta hilabetera estropada egin nuen Orion aulki mugikorrean. Martxoan hasi, apirilean aipatutako estropada hori egin eta ekainean Espainiako txapelketara. Han laugarren egin nuen. Emaitzak animatuta, gogor entrenatzea erabaki nuen eta hamazazpi urtetan estatuko selekzio jubenilean sartu ninduten.

Eta selekzioan...?

Hamazazpitik hemeretzira, soldaduzkara joan arte aritu nintzen. Urte horietan hasi zen hain zuzen ere estatuan arrauna gora egiten. Munduko entrenatzaile onena zen TOR NELSEN norbegiarra etorri zen. Bere eskutik Europa osoan ibili naiz lauko eta zortziko aulki mugikorrean. 1976an munduko txapelketara joan ginen. Hurrengo urtean senior

mailan sartu nintzen eta Austrian jokatu zen munduko txapelketa batean laugarren denborarik onena egin genuen Sobietar Batasuna, Ekialdeko Alemania eta Alemania Federalaren atzetik.

Nola hautatzen zituzten arraunlariak selkziorako?

Ez zen batere erraza izaten selekzioan sartzea. Orduan estatu osoko laurogeiren bat mutil aukeratu, konzentratu eta guzti horietatik hamar edo hamabi geratzen ziren.

Oroitzapen onak al dituzu urte haietaz?

Oso onak. Hilabetetan Bañolasen konzentratzen gintuzten. Orduan ikusi nituen lehen aldiz ergometroak. Froga fisiko eta teknikoak egiten genituen arraunkide egokienak topatzeko. Badakizu, biko mugikorrean, esate baterako, froga asko egin behar izaten da biko-te jakin bat elkarrekin arraunean jartzeko. Estropadak gogorrak izaten ziren.

Eta fijoan?

Selekzioko bilkuretatik etorritakoan bietan aritzen nintzen KOXTAPEn: aulki mugikorrean eta fijoan. Selektiotik forma fisiko oso onean etortzen ginenez, ez genuen batere arazorik izaten traineruan sartzeko. Horrela ba...1977an traineruan aritu nintzen eta 1978an traineruan eta trainerilan. Trainerutan urte horretan egin nuen Kontxako lehen-dabiziko estropada. Bi igandeetako denborak batuz, hirugarren geratu ginen, gogoan dut. KAIKUREn garai onak ziren. Baina guk trainerilatan egin genuen sekulakoa. Orduan egin zen Getarian lehenengo aldiz Euskadiko Txapelketa. Hura irabazi eta aurrean jarri ginen urte osorako. Eta aulki mugikorrean ere aritzen nintzen aldi berean.

Emaitza onak?

Bai, ezin dut kexatu. Aulki mugikorrean bigarren postu asko lortu nuen baina baita lehenengoak ere. Laukoan Euskadiko Txapelketa bat irabazi nuen eta Espainiakoa bigarren ere geratu izan naiz. Nolanahi ere, emaitzarik ikusgarrienak traineruan lortu ditut. Urterik onena 1988a izan zen zalantzarik gabe. Kontxakoa irabazi eta marka hautsi genuen. Denboraldi hartan beste marka bat ere ondu genuen: hamabi bandera irabazi genuen. Orain bi urte, ordea, San Pedrok gainditu zuen gure marka hura.

Noiz utzi zenuen KOXTAPE?

1989a izan nuen azken denboraldia. Bi urte beranduago Hondarribikoak etorri zitzaizkidan bila. Taldean gorabehera batzuk izan ondoren entrenatzaile izendatu ninduten. Hamalau gizon besterik ez nituen hasera hartan. Geroztik kluba asko indartu da, pabeloi ederrak egin ditugu eta une honetan 140 arraunlari ditugu maila guztitan banatuta. Hiru traineru atera ditugu aurtan.

Zein da entrenatzailearen lana?

Ezer baino lehen denboraldia planifikatu egin behar izaten da, eskuartean zer duzun eta zer egin dezakezun aztertu, betire, hori bai, garrantziarik haundiena traineruari emanaz. Trainerila ondo dator prestakuntza egiteko baina, esan bezala, traineruari begira egiten dugu denboraldiko planifikazioa. Plangintza garbi dagoenean, mutilak prestatzea eta



dagokien postuan kokatzea izaten da hurrengo zeregina. Lan horretan entrenatzaile bakoitzak bere estilo eta teknika propioak erabiltzen ditu.

Zure teknikak azkar eman al zuen fruitua Hondarribian?

Lehenengo urtean buru-belarri aritu ginen geure arraunkera lantzen eta bigarren urtean Kontxan sartzea lortu genuen. Seigarren postua eskuratu genuen eta maila horri eutsi genion denboraldi osoan. Hortik aurrera puntako traineruekin lehia hasi ginen eta horretan dihardugu.

Zenbat hilabete entrenatzen duzue urtean?

Hamaika. Denboraldia urrian amaitzen da eta hilabeteko etenaldiaren ondoren azaroan berrekiten diogu lanari. Lehendabiziko hilabetean korri egiten dugu eta pesak eta luebakia (fosa) lantzen hasten gara pixkanaka. Pesa bidez iraupen-indarra edo erresistentzia lantzen dugu eta luebakian arraunkera teknika. Eta nola ez, aurrerago itsasoan egiten digugu saioak, aulki mugikorrean eta fijoan. Egunero-egunero entrenatzen dugu, eguneroan pare bat ordu edo gehixeago.

Nola lortzen duzu mutilak puntu-puntuan egotea estropada garairako?

Entrenamentuen planifikazioan dago gakoa. Bihotza landu behar da batez ere eta zeregin horretan entrenatzaile bakoitzak bere trikimailuak izaten ditu. Medikuek ere ondoan izaten ditugu. Horrez gain, aurreko urteko datu eta emaitzak aztertu behar izaten dira okerrak zuzentzeko.

Nolakoak dira klub en arteko harremanak?

Orohar onak. Tirabirarik ere sortzen da traineruen neurri, pisu eta abarren inguruan. Horrelakoetan Federazioak eskuhartu beharko luke gauzak bere tokian jartzeko, baina tamalez, alde horretatik huts haundiak izan dira. Lege-haustea zigortu egin behar dira baina Federazioak ez du adorerik izan klub haundien hutsak zigortzeko. Pisu kontuan tranpa nabarmenak egin dira eta horrek tirabira bat baino gehiago sortu du.

Kale batetik bestera alde haundia izaten al da?

Haundia benetan. Haizea bihurria izaten da eta eragin desberdina

izan ohi du kale batean edo bestean. Kale batzuk bareago egoten dira mendiak babes-ten dituelako. Horrez gain, haizeak korronteak sortzen ditu estropadagunean eta korronte horiek sekulako buruhaustea izaten dira, batzutan mesederako eta bestetan kalterako izan daitezkeelako. Egun batean kale bat onena izan daiteke eta beste batean txarrena, betire haizearen arabera. Kontxan, esate baterako, ipar-mendebaldeko haizeak jotzen duenean hiru eta laugarren kaleak dira onenak, irla aldekoak. Nik hirugarrena dut nahia-go, laugarrenean inguruko itsasontziek traba egiten dutelako. Haizeak iparretik jotzen duenean berriz, lehenengo kalea da onena, nire ustez. Hortxe duzu adibidea.

Luzeran alderik izaten al da?

Garai batean bai baina gaur egun ez. Orain topografoz neurtzen dira kaleak. Arraun munduan saltsero asko dago eta horien kontuak izaten dira luzera desberdinei buruzko kritikak. Pertsona horiek bazterrak nahastu baino ez dituzte egiten eta gehienetan zerbait justifikatzeko asmatzen dituzte kontu horiek.

Erantzun laburrean:

Lehenengo patroirik onena? Aita Manuel eta Joxe Anjel Lujanbio.

Zure garaiko patroirik onena? Kaikuko Txirri.

Inoiz egin al duzu negar estropada amaitu ondoren? Bai.

Inoiz errezatu al duzu estropada hasi aurretik? Ez, baina gogoratu bai.

Droga edo antzekorik hartu al duzu inoiz estropadarako? Ez.

Momenturik gozoena? 88an Kontxa irabazi nuenekoa.

Pentsatu al duzu inoiz Lezon arrauna ereitea? Bai.

Kontxan pankartarik bai ala ez? Momentu honetan ez.

Arrosa ala berdea? Berdea eta txuri-berdea.

JOXE JUAN UGALDE ORDOKI.
Argazkiak: Agustin Lizarazu


DELINEANTE DE PROFESION Y DIBUJANTE POR AFICION

XABIER SALABERRIA SALABERRIA

El pasado año por la festividad de Pentecostés, precisamente a las 19,30 horas del viernes 2 de Junio de 1995, fuimos testigos de la apertura de la Exposición de Dibujos a plumilla y lápiz del lezotarra XABIER SALABERRIA en la rehabilitada ALHONDIGA MUNICIPAL, en su sala, magnificamente acondicionada, para conferencias, reuniones, y, naturalmente exposiciones, que está situada en la parte alta de este edificio que también cobija al Juzgado de Paz de Lezo... exposición que permaneció abierta al público durante las fiestas de Pentecostés, y algunos días más, por la categoría de sus dibujos.

Acudimos por nuestra condición de informadores, y también guiados por nuestra afición a esta clase de exposiciones y por nuestra curiosidad, sobre todo, porque desconocíamos ésta faceta de dibujante en XABIER... y, así como nosotros, notamos la misma sorpresa y admiración en los lezotarras que junto a nosotros acudieron a contemplar la exposición, así como amigos del autor que personalmente le felicitaron y expresaron su asombro recorriendo con él, con Xabier, cada uno de sus trabajos con sabrosos comentarios, tanto por parte del autor, explicando como los había realizado, como del público, que reconocía la labor, y se expresaban, de que el edificio dibujado ganaba en el dibujo resaltando más su valor arquitectónico que contemplándolos en su estado real...

Me descubro, diciendo, que fueron varias las visitas que realicé a esta exposición, porque no me quedaba satisfecho, y, aún y todo, en cada visita descubría, siempre, algún nuevo detalle, o motivo, que me hacía valorar la gran limpieza, el buen dibujo, y lo detallista del autor en la realización de su impecable trabajo... comentándolo todo ello con algunos de los organizadores de ésta exposición, nos dijeron, que debería presentarle en el "LEZO-16", coincidente con los próximos Pentecostés, y, así lo hacemos, tra haber mantenido una pequeña conversación con XABIER y su esposa Marisa en su vivienda de



Oiartzun, y, comprobar que no solamente dibuja él, sino toda la familia, su esposa y sus tres hijos... pero, conozcamos en primer lugar a Xabier, nuestro objetivo:

Nació en LEZO, en la postguerra y en pleno racionamiento, el 10 de septiembre de 1.942. El padre Bonifacio, era de Lezo y regentaba una panadería en el mismo LEZO, y la madre Agueda era de Pasaia, aunque, con cierto orgullo, nos recalca, XABIER, que los dos abuelos, el paterno y materno, también eran nacidos en Lezo. Xabier nació en la calle Mayor nº29, casa Alai-Etxe y su padre tuvo la panadería en la calle Zubitxo.

El padre murió cuando XABIER tenía tres años, y su hermano Adrián tenía año y medio, por lo que la madre con los dos hijos se fueron a vivir a Barcelona con el aitona materno que vivía en la Capital Condal por su trabajo.

En Barcelona acude, Xabier, a los cuatro años al Colegio, fueron varios colegios, y en Barcelona realizó el bachillerato.

Nuevamente regresa a Lezo, toda la familia, al jubilarse el aitona, tenía entonces XABIER, 15 años, era el año 1.957.

XABIER en Barcelona demostró una gran inclinación al dibujo, con 5 ó 6 años ya dibujaba con tinta china, dándosele muy bien el manejo de la plumilla. Con 9 años solía acudir al Barrio Gótico de Barcelona y a tinta china realizaba dibujos de los edificios, que algunos de ellos, todavía conserva con emotiva emoción y recuerdo de su estancia en Barcelona. Esta afición al dibujo le viene del pintor ELIAS SALABERRIA, nos explicaba Xabier mismo, que los abuelos, el paterno y el materno, ambos eran primos de ELIAS y al mismo tiempo del compositor TOMAS GARBIZU, y, estando en Barcelona, los 12 años que vivieron allí, todos los veranos venían a LEZO, y, XABIER solía contemplar admirado a ELIAS realizando sus pinturas en su estudio.

Aparte, nos explicaba Xabier, en 1.950, un año y pico antes de la muerte del pintor, ELIAS, estuvo varios meses en Barcelona realizando por encargo varios retratos de personas catalanas y durante esa estancia, en diversas ocasiones, Xabier le acompañaba, sentía una gran admiración por el pintor y por su personalidad.

También nos contó, que en noviembre de 1.951, ocho meses antes de morir, Elías, realizó un viaje a Barcelona y les llevó un cuadro con el retrato del bisabuelo Marcelino, que era hermano del padre de Elías, este cuadro era un regalo de Boda a los padres de Xabier que les prometió y lo entregó DIEZ AÑOS MAS TARDE. Recuerda Xabier, por ser la última vez que le vió, cuando le acompañó hasta la Estación de Francia de Barcelona, cuando el pintor regresó a Lezo tras dicha estancia en Barcelona, ese recuerdo lo mantiene vivo en su memoria.

Ya, en Lezo, toda la familia en 1.957, como ya hemos indicado, y ante esa inclinación de Xabier por el dibujo, acude a la academia MERCADAL de Dibujo en Donostia, hasta los 19 años... a esa edad entra a trabajar con el arquitecto donostiarra AZCUE como delineante, donde todavía en la actualidad continúa desarrollando su trabajo profesional.



Hizo el Servicio Militar obligatorio, la "mili" en Donostia, en Loiola en el Regimiento de Ingenieros-Zapadores, como voluntario con 20 años, todavía en 1961... precisamente por seguir manteniendo el trabajo alternando ambas obligaciones: la "mili" y el trabajo.

En 1979, se casa con la renteriana Marisa González, también de profesión delineante, viviendo un par de años en Rentería, y, de Rentería pasaron a vivir a Oiartzun, donde actualmente viven en Zelaia Taldea, con sus tres hijos, dos chicos de 14 y 11 años, y una chica de 9 años.

Para finalizar esta biografía de Xabier, en el tiempo que estuvimos con él, nos pareció un poco humilde y reservado al hablarnos de él, no daba importancia a su trabajo pictórico, pero sí responsabilizaba el de su profesión, quizás sea por esa mezcla catalán-vasco, pero se hace ameno una vez roto el protocolo inicial de toda conversación...

Nos recalcó, que solamente ha expuesto una vez, y en LEZO, y es porque le insistieron tanto los amigos, que al final cedió ante los argumentos que le plantearon: porque era en su pueblo, y, para que lo vieran sus paisanos.

La verdad, nos lo aseguraba, es que no me gusta exponer mis dibujos, en primer lugar por timidez profesional, y en segundo lugar porque no le gusta desprenderse de sus obras, ya que no tiene muchas realizadas, al no dibujar de continuo, ya que solamente dibuja cuando tiene ganas o se le ocurre realizar un dibujo determinado... Reconoce que le cuesta desprenderse de sus dibujos realizados de tarde en tarde y le gusta admirarlos junto con la familia.

Domina la plumilla y el lápiz, pero también ha probado acuarelas, óleos, acrilicos, aunque siempre predomina su tendencia a la plumilla y el lápiz.

Ha tenido ofertas desde Madrid para realizar exposiciones conjuntas con otros artistas, pero siempre las ha rechazado, así como exponer en el Museo donostiarra de San Telmo, pero no es partidario de exponer, porque no le gusta desprenderse de sus obras, ya que exponiendo parece que vendes y vienen las ofertas...


También ha realizado desinteresadamente catálogos para algunas editoriales, TOR una de ellas, lleva unos veinte años dibujando para la sección de Prehistoria del Grupo de Ciencias Naturales Aranzadi, y, otros trabajos más, pero siempre como colaborador, desinteresadamente...

Le encanta la caricatura, en cuyo campo ha realizado muchas y sobre todo su mayor satisfacción es el dibujo de arquitectura popular, edificios viejos, señoriales, religiosos, etc...

Y, es, curioso, pero como hemos insinuado al comienzo, en casa dibujan todos, su esposa es también delineante y también le gusta el dibujo y los tres hijos se "apañan -nos dice con cierto orgullo- muy bien con el dibujo...".

Con un apretón de manos dejamos a Xabier, en la Sala de Casa, de donde no pudimos irnos sin echar una mirada a unos magníficos dibujos a plumilla enmarcados sobre un comodo sofá..

Rafa Bandrés



LEZO HERRIA

EGILEA : Ander Domingo

DATA : 1997ko Martxoak 5

Lezo Herri Eskola

3 maila

LEZO HERRIA


① NON DAGOEN

Lezo Gintuzkoan bareruan sartuta dago.

Erreenderi eta Donibaneak inguratzen dute Lezo.

Jaitzibel mendia ondoan dago eta Kantauri

itrasoak inguraturuta dago.




② NOLAKOA DEN

Lezo herri txikia da 5.700 biztanle dunde


Lezo herrian parteak Belaiak eta polikiroldegi

bat egiten ari dira.



③ ZER IKUS DAITEKEEN

zeron monumentuak, maipalak eta etxe
ikusgarriak badarude, adibidez: Gurutze Santuaren
Basilika, baseoak, jaizkibelgo torresak,
San Joan Bataiatzailearen marrotoa eta
Andreone Kultur-etxea.



④ JAI AK

Santa Kruzak irailaren 14 oren inguruan
osnatzen dira Gurutze Santuaren onenez
osnatzen da jai hau. Sokamuturra, ididema,
herri kirolak, haur desfilea eta gehiago egoten
da.


zeron San Joanak osnatzen dira ekainaren
23an orratzaldy San Joanen onenez esiten
da jai hau. Bizarrara igo, sira eta kantzak dira

egiten diren ekitaldiak.

Iharteriak Ostegun batean hasten
dira eta egunak koloreen bidez ezagutzen
dira. Trapujalea da pertsonai nagusia.



ANDER DOMINGO
LEZO HERRI ESKOLA
3. maila



URRITZA . *Corylus avellana* .

Urritzak, bere fruituengatik, wrrengatik alegia, ezagutzen diren zuhaizkak dira. Gehienetan ainetik hasita adarkatzen da, horregatik ez du eduki ohi erbor nagusirik. Argiaren kompetentzia haundia goa dagoen leku itxiagotan bakarrik hartzen dute zuhaitz tamaina.

Bihotz formako hostoen ertzak zerratuak ditu. Iparraldeko beste zuhaizka asko bezala oso goiz loratzen dira, otsailaren bukaera alde-ra. Lore har eta emeak ditu. Harrak zintzilikarietan agertzen dira eta emeak begi txiki batzuren modura. Lore emea ernaldu ondoren eta azaltxo berdeetan bildurik urrak azalduko dira.

EZAUGARRI EKOLOJIKOAK

Hosto erotkor haundiak dituztenez, baldintza fresko eta hezeak behar izaten dituzte.

Pago, gaztainondo, arte, etab. bezala, fruituak azal gogorra du eta mani asko barruan. Horrek negu luzeak irauteko aukera ematen die eta baita urte batzuetan lurperatuta edo erdilurperatuta egoteak ere, baldintza onak aurkitu eta erretzen diren arte. Bere forma borobilak biraka errezta suhez joateko aukera ematen die, erreka, hezi, e. z. bezalako lekuetaraino iritsiz.

Urrak abuztutik urrira heltzen dira. Jangarriak eta oso elikagarriak. Urritzen egurra gogorra da, makilak egiteko eta tailatzeko oso estimatua. Sastki gintzan ere oso erabilia da.

Landare hauek benetako hezi naturalak eratzeke erabili ohi da, zelai eta larretoki ertzetan.



KOKAPENA

Ja Europa osoan eta Asiako mendebaldean dago banatuta.

Euskal Herrian bereziki ugari izaten dira iparraldeko zonan, ez ordea hegoaldean.

Lezori dagokionez bai Jaizkibel mendian, bai baserrialdean ere topa dezakegu, beti ere leku heze eta erreka bazterretan.

Herrian bertan ale bakarrenetakoa dugu irudion agertzen dena. Atzokoate Kanean dago eta etxeberrita egiteko direla eta arriskuan.

Azken urtetan landare gazteak berlandatu izan dira Pysbeko erreka ondoan, Zubitxon, Jaizkibel eta Altaniran.

AUTOBIAREN AURKA EZIN ETSI

Herri honek autobia-
ren inposaketaren aurka daraman borrokaren islada
betirako gorde dadin, aurreko LEZO aldizkarian eskeinitako egunez eguneko kroni-
karen jarraipena eskeini nahi dizuegu.

96 ko Maiatzaren 17a: Herri Olinpiadetako goitibehera jeitsiera Altamiran. Ondoren
80 pertsona inguruk Autobiaren aurkako protesta burutzen dute auzotik Lezora manifes-
tazioa eginaz.

Maiatzaren 18a: "Kaia Herriarentzat,
autobiarik ez" lemapean enkartelada Lezotik
Pasai Antxora Kaiatik zehar. 22 pertsonak
parte hartzen dute.

Maiatzaren 23a: Herriko jaiak.
Autobiaren aurkako Herri Ekimeneko batek
jai hasierako pregoia irakurtzen du herriari
borrokan parte hartzeko gonbidatuz.

Maiatzaren 24a: Gaueko 12 etan Kode
Penal berria, Superkuartela eta Autobiaren aurkako gazte manifestazioa herriko kaleetan
zehar, 500 pertsona inguru bilduz.

Ekainaren 6a: Hitzaldia eta mahai ingurua Hernanin.

Ekainaren 8a: Herri Ekimenak Kaputxinosen prentsaurreko bat eskeintzen du autobia-
ren aurrean garraio kolektiboaren aldeko apostua eginaz eta Orereta-Donostia bitarteko
Tranbia berreskuratzeko eskatuz.

Ekainaren 15a: Lezoko hainbat bizilagun-
ek Foru Aldundiko errepide saileko diputa-
dua den Jose Julian Irizarren (EA) etxe
aurrean enkartelada egiten dute
Zumarragan.

Ekainaren 17a: Gipuzkoako Batzar
Nagusiek "faxistak" deitzen die Zumarragan
enkartelada egindako bizilagunei.

Ekainaren 18a: Herri Asanblada Lezon.
20 pertsona bildu gara.

Ekainaren 19a: Autobiaren aurkako kiniela kalean da.





Ekainaren 20a: Herri Ekimenaren protesta Batzar Nagusietan Aieten. Ezker Batuak eta Herri Batasunak autobiarri buruzko moratoria eskatu dute. Ez da onartua izan PSOE, EA eta PNVren botoekin.

Ekainaren 28a: Peajeari intsumisioa. Irungo peajearen konzentrazioa eta peajearen blokeoa lau autoren bidez.

Ekainaren 31a: Herriko baserriarrek hamaiketako plaza herriko plazan.

Uztailaren 1a: "Euskal Herria Askatu" deiturik konzentrazioa peajearen aurka Arraguako autopistaren sarreran. 30 pertsona.



Uztailaren 2a: Hondarribiako udaletxe aurrean eta Foru Aldundiko diputaduen bilkura dela eta herri ekimenaren enkartelada.



Uztailaren 5a: 25 pertsonak Altamiratik hasi eta herriko kaleetan zehar kalejira bat burutzen dute manifestazio alaitzuan parte hartzeko deia eginaz. Ertzaintzarekin arazok **egon dira.**

Uztailaren 6a: HERRI NORTASUNAREN ALDE eta AUTOBIAREN AURKA manifestazio alaitzua Lezotik Donostiara. 450 pertsona inguru parte hartzen dute. Bukaeran, Foru Aldundiaren aurrean bertsolari, dantzari, danborjole eta zuhaitz baten landaketa egin zen.



Uztailaren 8a: Kaputxinoseko trenzubiko oinezkoen pasalekua konpondu dute Herri Ekimenak bere egoera arriskutsua salatu ondoren.

Uztailaren 17a: Zabarre, Txerrimuño eta Gazte Herriko hainbat gaztek auto-biaren aurka enkartelada egiten dute Foru Aldundiaren aurrean.

Uztailaren 18a: Peajeari intsumisioa kanpainaren barruan Lezoko auto guztietan orri banaketa.

Uztailaren 19: Lanen adjudikazioa dela eta, **Sobrino, Tecsá** eta **Sarasola** enpresak izan dira kinielaren emaitzak. Asmatzaileen artean sari banaketa egin da Allerun. Enpresa hauei moratoria eskatuz ahundaka postal bidaltzen hasten da.



Uztailaren 20: Construcciones **Sobrino**, eta Construcciones **Sarasolak** Donostian dituzten bulegoetan salaketa protesta. 20 bat pertsona bulegoetan sartu eta pezeta txanpona ugari bota dituzte enpresen dirukeria salatzen. Moratoriaren eskaera ematen zaie eskura. Oreretan material informatiboa zabaltzeko mahaia jarri da. Madalen bezpera.

Uztailaren 21: Oreretako txupinazoan “Peajeari Intsumisioa” ehundaka oktabila botatzen dira.

Uztailaren 23: Herri Ekimeneko 20 kide, **Tecsá** enpresak Lezon eraikitzen ari den babes ofizialeko etxeen obretan sartu eta lanak geldiarazten dituzte bertako makinak apainduz.

Uztailaren 29: Autobiaren lehengo fasearen maketa iristen da Lezoko udaletxea.

Abuztuaren 1a: Anoetan Abiadura Handiko Trenaren aurka antolatutako akanpadaren ekitaldi barruan Lezoko autobiar buruzko hitzaldi eta diapositiba emanaldia.



Abuztuaren 5a: “Peajeari Intsumisioa” orrien banaketa Pryca eta Mamuten.

Abuztuaren 8a: Sobrino enpresako topografoak Altamiran hasi dira. Jendea hurbildu zaie eta lanak bertan behera utziarazi.

Abuztuaren 12a: Donostia txirrindulari klasika dela eta bidegorrien aldeko parodia Lezon. Autoen eraginez txirrindulari ugarien hilketak salatu dira.



Abuztuaren 13a: Herriko Alondegian autobia-
ren inguruko AZALPEN-KRITIKA eta EZTABAI-
DAN 20 pertsona bildu gara. Udalak maketa ikus-
tea oztopatu digu. Argazki erakusketa, bideo eta
diapositiba emanaldia egon dira.



Abuztuaren 14a: Goizeko 12 etan, 17 pertsona Lezoko udaletxera sartu dira, proiektuaren maketa hartu, plazara jeitsi eta zortzi orduetan txandaka bertan kateatuak egon dira. Udalaren jarrera salatu da.

Abuztuak 20a: Udalak maketa Foru Aldundiari itzuli dio.

Abuztuak 21a: Herriko elkarte gehienak, LAB sindikatuak eta HB eta IU/EB alderdi politikoen autobia-aren inguru moratoria eskaera luzatzen dute.

Abuztuak 27a: Zabarre Gazte Taldea Lezoko udalari EZTABAIDA PUBLIKO baterako gonbidapena egiten dio, ezezko erantzuna jasoaz.

Irailak 11: Autobia buruzko hitzaldia Lartzabalen.

Irailak 12: Lezoko udalak ere MORATORIA eskaera luzatu dio Foru Aldundiari.

Irailak 13: Lezoko jaien txupinazoan Herri Ekimeneko 14 pertsona Udaletxeko teilatura igotzen dira letra



haundiz “Autobiaren Aurka Herri Borroka” esaldia osatuz. Teilatutik udalari zuzendutako “Kalabaza” zintzilikatu da.

“Autobiarik ez” zapiak balkoitan jartzeko deialdia. Plazan mahai bat jarri da zapiak banatzeko.

Zabarre haserre dago Autobia dela eta.



Irailak 17: Autobiaren Aurkako Akanpadaren hasiera Altamirako zelaietan. 15 kanpin denda daude. Ertzantzak akanpadako nahiz bizilagun eta bixitari guztiak bideoz filmatu eta identifikarazi ditu (guztira 50 pertsona).



Irailak 18: Goizean egindako mendi ibilaldian 16 pertsona bildu dira. Arratsaldean ITOITZEKIN elkartasuna taldeko kideen eskutik hitzaldia. 19 kanpin denda daude.



Irailak 19: Goizean kaiatik zehar txalupaz enkartelada. "Kaia Herriarentzat". Arratsaldean oinezkoen eskubideen aldeko enkartelada egin da Altamirako rotandan eta ertzantzak kide bat atxilotu eta gainontzekoei gasak eta kolpeak eman dizkie. Enkartelada herriko kaleetan eta herriko alkatearen etxe aurrean. Gaueko 9 etan 200 pertsona inguru osatutako manifestazioa egin da Altamira auzoan. Ertzantzak indarrez manifestazioa zapuztu zuen.

Irailak 20: Goizean 15 pertsona garraio kolektiboaren aldeko protesta egin dute. Donostiako epaitegi aurrean prentsaurreko bat eskeini du Herri Ekimenak bezperako gertaerak salatze-ko.

Foru Aldundi aurrean protesta. 10 per-sona sarrera aurrean etzan dira bere gorputz gainetik autobia irudikatzen zuen plastikoa pasatuz.

Arratsaldeko 4 etan Euskal Herriko Nekazarien Elkarteko kideek hitzaldia eskeini dute akanpadan.

Arratsaldeko 7 etan herri asanblada Lezoko Plazan eta ondoren 200 Perts. osatutako gizakatea herriko kaleetan zehar.

Akanpadan 35 kanpin denda daude.



Irailak 21: Goizeko 10 etan hasita txirringa martxa bidegorrien alde bailaran zehar. 20 txirrindularik parte hartu dute.

Arratsaldeko 4 etan berrogei pertsona inguruk Arraguako peajeon konzentrazioa egin dute.

Ordu berean akanpadatik inguruko baserrietara irteera egin da haurrekin. 20 haur eta heldu parte hartu zuten.

Gauean rock jaialdia akanpadan JOUSY LOULY eta MIKEL ONIONS taldeen eskutik.

Irailak 22: Akanpadaren amaiera. Eguerdiko ordubatean 300 pertsonak osatutako manifa egin da. "INPOSAKETARIK EZ, TXIKIZIOA GELDITU".

Ondoren herri bazkarian 70 pertsona elkartu gara.

Irailak 26: Lezoko udalak bi akordio hartzen ditu ospatutako plenoan. Lehenengoan akanpadan ertzainen jokaera salatu eta bertan atxilotutakoari bere babesa emateko.



Bigarrenean, udaletxean "AUTOBIARIK EZ" dioen zapi bat jartzea eta herriari gauza bera egin dezan eskatzea erabakitzen da (Ikus gehigarrian akordio osoa).

Irailak 30: Lezoko hainbat bizilagunek, Sobrino enpresako topografoak eta Foru Aldundiko teknikariei lana utzi eta alde egitera gonbidatzen zaie "TXIKIZIOA GELDITU" zioen pankarta batekin aurrean jarriaz.

Urriak 1: Oiartzungo udalak, Oreretako sahesbidearen ingurua MORATORIA gauzatzea eskatzen du. (Ikus gehigarrian onartutako akordioa).

Urriak 4: Gipuzkoako juntetxean IU/EB eta HBk sahesbidearen inguruan MORATORIA gauzatzea eskatzen dute. PSOE, PP, PNV eta EAren ezezko botoekin atzera bota zen.



Urriak 5, 6: Autobiaren Aurkako itxialdia Oreretako Gaztetxean. Itxialdia amaitu ondoren protesta egin zen Oreretako udaletxe aurrean, udal honek proiektuarekiko duen jarrera salatzeko. (Ikus prentsa oharra).

Urriak 7: Makinak lehen aldiz lanean hasi dira, Lintzirindik Salvatore baserri-raino pista zabal bat irekiaz.

Urriak 9: Herriko hainbat bizilagunek, topografo, Foru Aldundiko teknikari eta martxan ari den makina bat geldiarazten dute "TXIKIZIOA GELDITU" eta "STOP" zioten pankartekin. (Ikus prentsa oharra).



Urriak 12: Autobiaren aurkako herri ekimenak antolaturik mendi martxa obretara. 40 pertsonak parte hartu zuten.

Mendi martxa bukaeran, hainbat zuhaitz eta adar hartu eta Oretako herriko enparantzara jeitsi zituzten protesta gisa.

Ertzainek gizon bat atxilotu zuten.

Urriak 15: Herri Ekimenak Bilboko Epaitegian "PARALIZACION CAUTELAR" delakoaren eskaera egiten du.



..

Urriak 17: Foru Aldundi barruan protesta berria. Bizilagunek, txikitutako zuhaitz eta landare, erreko ur, harri eta belar eta txikituko dituzten baserrien teila eta barazkiak erregistratzen dituzte lanak gelditzeko eskatuz.

Urriak 26: Autobiak txikituko duen BIZKARRONDO baserrian erromeria. Bigarren aldiz lanean ari ziren kamioiak geldiarazten dira "TXIKIZIOA eta INPOSAKETARI STOP" zioen pankartarekin. Ertzainek gazte bat atxilotu zuen. (Ikus prentsa oharra).



Azaroak 2, 3: Autobia grisa gelditzeko mural erraldoi koloretsuak egin ziren Altamira auzoan, haurrak nahiz helduak parte hartuz.

Azaroak 12: Behobia-Donostia ekitaldia dela eta enkartelada Altamirako bidegurutzean. 7 pertsona egon dira.

Azaroak 14: Lezoko autobiari buruzko hitzaldia Urretxun.

Azaroak 18: Herri ekimeneko kide bat atxilotua izan da obretan Oarso Telebistari elkarriketa bat egiten ari zen unean.

Azaroak 23: Hitzaldia eta diapositiba emanaldia Altzibargo Gaztelekuan. 27 pertsona bildu dira.

Azaroak 25: Hitzaldia eta diapositibak Andoaingo gaztetxean.



Azaroak 28: Herri Ekimeneko kide batek mugagabeko gose grebari hasiera ematen dio.

Azaroak 29: Irizar eta Antton Jaime Altamirara etorri direla eta hamabost pertsonak protesta egin dute.



Abenduak 5: Lau egunetako itxialdi baraua hasi dute udaletxean 20 pertsonak. Arratsaldean 100 pertsonak giza katea egin dute errepidea une batez moztuz.

Abenduak 7: Autobiaren aurka eta gose grebalariarekin elkartasunean 20 pertsonak osatutako enkartelada plazan.

Abenduak 8: Lezoko alderdi politiko eta herriko alkatearen etxe aurrean enkartelada. Berrogei pertsona bildu dira. Itxialdi barauaren amaiera. Gose grebalariak aurrera jarraitzen du.



Abenduak 14: Mendi martxa autobiairen obretara. 15 pertsona elkartu gara. Ertzantzak kazetari eta protesta burutzen ari zirenak kanporatu ditu obretatik.

Abenduak 20a: Herri Ekimenaren protesta Foru Aldundiaren bulegoetan. 15 lagun enkartelatu dira.

Abenduak 31a: 23 egun gose greba egin ondoren Herri Ekimeneko kideak bertan behera uzten du protesta hau. Autobiari buruzko parodia komikoa egin da plazan.



97 ko Urtarrilaren 3tik 7ra: Autobiairen aurkako borrokari buruzko diapositiba emanaldiak plazan.

Urtarrilaren 18a: Abiadura Haundiko Trena eta proiektu txikitzaile guztien aurkako manifestazio jendetsua Donostian. Lezotik gutxi-gorabehera ehun pertsona joan ziren.

Urtarrilaren 28a: Herri Ekimenak "kamixeta ekologikoa" saria ematen die Oreretako Zintzilik Irrati Librea eta Egin Irratiari hauzi honetan egin duten lana baloratzeko.

Herri Ekimenak eskatutako "Paralización Cautelar" delakoa bertan behera uztea erabaki du epaiak.



Otsailaren 1a: Txikizioa salatzen eta bizitzaren alde zuhaitz landaketa berria egin da Altamirako zelaietan. 30 haur nahiz gazte bildu dira.

Otsailaren 6a: Altamiran lehen makinak sartu direla eta Trapujalez jantzitako zortzi lagun obretan sartzen dira pankarta batekin. Ihauteriak direla eta Trapujalek dei egiten du autobiarri aurre egitera.



Otsailaren 13a: Itsasbazterrak zaintzeko dauden Donostiako bulegoetan autobiarren aurkako protesta bere utzi-keri eta kolaborazioagatik.



Otsailaren 20a: Obretan kontzentrazioa kaputxinosen. 12 pertsona. Obrak gelditu.

Martxoaren 4a: **Sobrino**, **Tecsa** eta **Sarasola** enpresek osatutako UTE aren bulegoetan salaketa ekintza egin dute 17 lagun.



Martxoaren 14a: Korrika dela eta 20 pertsona autobieren aurkako banderekin korrika.

Apirilak 3a: Prentsaurreko jendetsua Altamira auzoan. Lanak gelditzearen alde.

Apirilaren 4a: Bideo emanaldia Allerun. Ingalaterrako autobien aurkako borrokaren berri.



Apirilaren 12a: 1200 pertsonak parte hartu zuten "autobieren lanak gelditu" lelopean Lezotik Oreretara egindako manifestazioan.



36ko GERRAREN MISTIKA ABERTZALEA

Herri baten historia-liburuan orri alaiak eta orri tristeak daude, garaienaren orriak eta porrotarenak, orri ederrak eta ezkutatzeko modukoak. Eta hauxe da gure Euskal Herriaren historian gertatzen dena. Dena den momenturik txarrenak, larrienak, izaten dira herriaren gogoan gelditzen direnak, eta askotan gertakizun gogor horien inguruan mistika bat sortarazten dutenak. Ezin dugu gure gogotik aldendu karlistaden inguruan sortutakoa, edota gaurko matxinada eta gerrilaren inguruan idazten ari dena, edo 36ko gerraren inguruan gure herritarrek hitzez eta idatziz finkatu zutena. Etsaia gero eta hurbilago genuen, gero eta ankerrago. Euskadi gorroto zuen, eta berarekin batera gure sinbolo eta nortasun maila guztiak: euskara, ikurriña,...



Jose Antonio Agirre Lekube Euzkadiko lehenengo lehendakaria.zu

Euskadi, edo garai hartan esan eta idazten zuten bezala Euzkadi, egiten ari zen. Itxaropenak piztu-piztuak zeuden. Abertzaletasuna gora. Erakunde sortuberriak genituen: jaurlaritza, lehendakaria, ikurriña, gudarostea, ertzaintza, gudariak,... Elementuak hor zeuden, eta etsaia gure ateetan, edozein momentutan sartzeko prest. Ez da harritzekoa, bada, une latz haietan sortutako mistika abertzalea. Euskadik bizi nahi zuen, eta hortarako irabazi behar zuen gerra-zelaietan. Gerrak ekarri zituen bi aldeak, gurea eta etsaiena, bi aldeen banderak: ikurriña eta gorri-horia, gudariak eta falangistak, heriotza eta odola, gorrotoa eta irabazteko beharra. Beraz, bazegoen mistika abertzalea sortzeko behar zen guztia. Herriak, ahoz ahoko esamesek eta kontuek, bertsoek eta artikulu eta liburuek egin zuten falta zena: bihotzetan zegoena beste arlo batera eramatea, mistikaren arlorra, mistifikazioarenera hain zuzen.

Mistika honetan murgilduz gero, gauza anitz, pasarte asko daude oroitzeko baina bada-go bat oso berezia dena, bertan ikurriñaren eta espainiarraren arteko lehia gogorarazten

baitzaigu. Iñaki Egaña idazle donostiarrek "Ikurriña, 100 años" izeneko liburuan, 84. orrialdean honela kontatzen digu pasarte hau:

*Eusko gudariak gera
Euskadi askatzeko,
gerturik daukagu odola
bere alde ez emateko.*

"... Gernikako bonbardaketa izan aurretik, zenbait gatazka odoltsu egon ziren. Gerra guztietan gertatzen den bezala, gatazka hauetan mitoa eta errealitatea nahastu egin ziren. Gatazka horietako bat izan zen gure gudariak Sabigain mendia berreskuratzeko gauzatu-takoa. 1.000 metro inguruko menditzar honek Otxandiako ibarra babesten du. 1.937ko apirilaren 14an, borrokako bi egun ondoren, Felipe Bediaga komandanteak Sabigaingo gailurra hartu zuen, eta esku kolpe batez bandera espainola kendu eta ikurriña ipini zuen bere ordean. Hau egiten ari zela, tiro bat eman zioten eta ikurriñaren itzalpean erori zen zerraldo. Hurrengo goizean, frankistek ehizako hegazkinen laguntzarekin, mendiko gailurra berreskuratu zuten. 10 egun beranduago, Gudari aldizkariak Juan Briones-ek Bediaga komandantearen omenez egindako erderazko olerki ederra kaleratu zuen".

Eta hauxe da, nik mistika abertzale honen islada gisa, eta gure gudari guztien aldeko oroigarri bezala, orain euskaraturik eskainiko dizuedan olerki edo kantua. Originala ikusi-nahi izan ezker GUDARI-5era jo ezazue.



Herri xehea izan zen 36ko gerraren inguruan sortutako itzaropen eta errelaitate guztien bultzatzaile nagusia.

“ARANA-GOIRI” BATAILOIKO HEROIAK
SABIGAINeko GAILURRAREN HARTZEA
1937ko apirilak 14

- Sabigainen gora
gudari adoretsuak aurrera doaz.
Ez daramate inolako babesik,
eta gailurretik
inbasoreek bidaltzen dizkieten balak
desafiatuz,
aurrera darraite.

- Gora, gora euskaldunak!
gora arraza indartsuko mutilak!
gora sekula inbasoreak menperatu
ezin izan duen lur honek emandako
seme leialak!
Gora, gora gure aberriagatik!
-Modu honetan berotzen ditu
Bediaga komandanteak bere gudariak-
Bera aurrena doa, menditik gora igoz,
atsedenik gabe,
ezerk ezin baitu Bediaga geldiarazi!

- Hotzak, haizeak, euriak,
kolpatzen dituzte gudari gazteak,
baina bihotza tente eramanez,
lur azaletik arrastaka, lau hanketan,
etsaiaren metraila engainatuz,
aurrera darraite.

- Gailurrera ari dira iristen,
aurrez aurre ari dira borrokatzen,
gizonez gizon, baionetaz, tiroz,...
ahal den moduan.
Eskuko lehergailuak ari zaizkie jaurtikitzen.
Aurrera euskaldunak!
Aurrera gure aberriagatik!
Aberriaren askatasunak aurrera segitzea
eskatzen baitugu!
Aberriaren ohore garbiak
honela agintzen baitugu!

- Etsaiak Bizkaiko bihotzeraino
nahi du iritsi.
Aurrera aberkideak!
garaipena gurea da eta!
-oihukatzen zuen behin eta berriro
Bediaga komandanteak-
Eta lehoi baten gisa,
arraza handi baten sorterria den
euskal lur santua
profanatzen ari diren arerioen kontra
eraso egiten du.

- Etsaiek, izaturik,
igarotzeko bidea uzten diote,
bera korrika eta lasterka,
denborarik galdu gabe,
gailurrera igotzen da,
eta han zutik eta harro dagoen
espainiar bandera lurrera boteaz,
eta bere tokian ikurrin zuri-berde-gorria
airoxoki ipiniz,
halaber, GORA EUSKADI ASKATUA!
oihu egin zuen.

- Gudariak,
euren komandantearen adoreak piztuta,
aurrera doaz.
Etsaiak mendian behera,
bala eta laino artean bidaliz.

- Baina komandantea hilik dago,
eta bere gorpua berak ipinitako
ikurriñaren ondoan datza.
Gorpua etzanda dago,
ikurriña berriz, zut-zutik.
Euskal ikurrin garbia
haizager dago
zuri-berde-gorri,
Euskal Herri osoa agurtuz,
euskal mendi gorenak estaliz.

- Euskadi!
Fazismoak ez dezela inoiz
zurekin buka!
Euskal ikurrin santua
segi haizager!
gure lurren gainetik kulunkatuz.
Aberriaren askatasuna
gainezka dadin
gurutzea eta ezpataren gainetik!

JOAN BRIONES ORTUN



Bediaga komandantea hilik zegoen, lurrean etzanda, berak Sabigaineko gailurreran ipinitako ikurriñaren gerizpean.

Garai hartako mistika alde batera utzita, ikus dezakegu orduko borroka ez dela bat ere aldatu. Gaur egun bi aldeek aurrez aurre jarraitzen dute, eta gaur orduan bezala, gailur eta balkoi ofizialetatik ikurriña kentzen dute, ondoan ez duelako gorri-horia lagun. Bediaga komandanteak arrotzarena kendu zuen gurea jartzeko, eta gaur biak elkarren ondoan ipini nahi dituzte zuri batzuek. Baina ezinezkoa, guztiz ezinezkoa, eguna eta gaua uztartzea guztiz ezinezkoa den bezala Iritsiko zaio ordua Euskal Herriari, eta orduan ikurriña gure bihotzetan egoteaz gain, Euskal Herriko bazter guztietako balkoi ofizialetan egongo da, harro eta bakarrik. Bitartean aldarrika dezagun, Joan Briones Ortun-ek bere kantuan egin zuen bezala, Euskadi! fazismoak ez dezala inoiz zurekin buka! ezta "demokraziak" ere!!!

ZABARREKO

LEZOKO TOPONIMIA (I)

Inongo giza-talderen iraganeko hizkuntz egoerak ezagutu, edo behinik behin antzeman ahal izateko, ia ezinbesteko baldintza da giza-talde horren lurralde-eremuko toponimokak bildu eta aztertzea. Honako hau, hain zuzen ere, Lezoko leku eta etxeen izendegia da, jatorrizko iturriekin zehatz-mehatz bat datorren bilketa-lana. Bertan, bi atal bereizi dira: lehenengoak agiri zaharretan idatzitako izenen berri ematen du, eta bigarrenak gaur egungo herritarren ahotik jasotako izenena.

Itxura batean, Lezoko ahozko hizkuntza nagusia betidanik euskara izan da, eta bertako euskalkia iparraldeko goi- nafarrera. Horren ondorioz, lan honetan izen euskaldunak dira nagusi. Zenbaitetan, ordea, historiaren gora-beheren kariaz, beste hizkera batzuen eragina ere ageri da, hala nola gaskoiarena edo gaztelaniarena.

IDATZIZKO LEKUKOTASUNA

LABURDURAK

- LUA Lezoko udal agiritegia.
- Isast. *Compendio historial de la M.N. y M.L. provincia de Guipúzcoa por el doctor don LOPE DE ISASTI en el año de 1625.* - San Sebastián, 1850.
- Comp. *Compendio de las hojas declaratorias de la riqueza rústica.*
- HUA Hondarribiko udal agiritegia.
- EHAD Elizbarrutiko historia-agiritegia, Donostia.
- Amill. *Amillaramiento de la riqueza rústica y pecuaria.*
- ADP Archivo diocesano de Pamplona.
- GPHAO Gipuzkoako protokoloen historia-agiritegia, Oñati.

“ABANZADACO GAÑA” - “ARRIESCALLETA-LURRA”

[**Abanzadaco gaña** (1897)]. Jaizkibel mendiko lekua. “8º Mojón. (...) Se halla situado a unos 10 metros del fortín númº 1 del monte Jaizkibel en el paraje llamado Abanzadaco gaña”. LUA: C/5/I/1/15.

[**aBendaño** (1643)]. Baserria. LUA: E/4/I/1/3. [Avendaño] Isast., 94 or.

[**Abendaño-aldea** (1818)]. Lekua. "...parage denominado Abendaño-aldea". LUA: E/8/IV/1/1.

[**Abendaño Villaviciosa** (1637)]. Baserria. "...Avendaño se quemó con las guerras de Francia, y en su término ha edificado el Licenciado Villaviciosa hospitalero de Pamplona una caseria borda con un grande manzanal y jardin, y le ha dado nombre Villaviciosa..." (Isast., 94 or.). LUA: E/4/I/1/3.

[**Agaramontenea** (1818). **Agramontenea** (1820). **Agramonte** (1824). **Agamuntanea** (1876)]. Baserria. [I] LUA: C/2/I/3/1. [II] LUA: C/5/III/1/2. [III] LUA: C/7/III/1/2. [IV] LUA: B/6/1/2.

[**Agaramonteberry** (1945)]. "Finca". LUA: Comp.

[**Aguirreberry** (1824)]. Etxea. LUA: C/7/III/1/2.

[**Agustiñenea** (1725). **Agustiñanea** (1824)]. Etxea. "...y añadio d[ic]ho J[ose]ph tenia mala azada aque el declarante le dixo que en la casa de Agustiñenea havia azada y podia tomarla si fuese mejor...". [I] HUA: E/7/IV/27/12. [III] LUA: C/7/III/1/2.

[**Ayerdinea** (1945)]. Baserria. LUA: Comp.

[**Aingueru** (1737)]. Etxea. "En doce de Junio de mil setecientos y treinta y siete murio Maria Ygnacia de Soroeta en la casa de tita q[ue] es en el varrio de Biscaia recivio los s[an]tos sacram[en]tos de esta Parroq[ui]a como feligres suio y fue enterrada en la Parroq[ui]a del Pasage precediendo responso del cavildo de esta Parroq[ui]a y su cruz, acompañandola asta la casa de Aingueru con ella...". EHAD: Lezo, hildakoen bigarren liburua.

[**Aizcorbenea** (1818)]. Etxea. LUA: C/2/I/3/1.

[**Aldarracunza** (1818). **Alargunza** (1897). **Aldarlacunza** (1945). **Ardalacunza** (1945)]. Baserria. [I] LUA: C/2/I/3/1. [III] LUA: C/5/I/1/15. [III eta IV] LUA: Comp.

[**Aldarracunza baja** (1837). **Aldarracunza abajo** (1840). **Ardalacunza bea** (1867). **Alargunza bea** (1898). **Ardalacunza azpicoa** (1945). **Ardalacunza-azpiya** (1945). **Aldarlacunza-Becoa** (1945)]. Baserria. [I, II eta III] LUA: C/7/III/1/2. [IV] LUA: C/5/III/1/10. [V, VI eta VII] LUA: Comp.



Abanzadako-gaña (1997)

[**Aldarracunza arriba** (1824). **Aldarracunza-burua** (1842). **Ardalacunzagoya** (1859). **Alargunza goicoa** (1898). **Alargunza-burua** (1945)]. Baserria. [I] LUA: C/7/III/1/2. [II] LUA: C/5/III/1/2. [III] LUA: C/7/III/1/2. [IV] LUA: C/5/III/1/10. [V] LUA: Comp.

[**Allerru** (1897)]. Jaizkibel mendiko lekua. "14º Mojón. Sirve de tal un peñasco arenisco señalado con las letras L.P. y una cruz en el paraje llamado Allerru". LUA: C/5/I/1/15.

[**Alhondiga** (1862)]. "Ultimamente queda encargado D[o]n Benito de Olaizola en llevar la nota de los vinos que se descargan en esta Alhondiga durante el año que rige y a hacer el correspondiente aforo segun las condiciones de los remates". LUA: A/1/4.

[**Alrubi** (1884)]. Lekua. "...un terreno arbolado sito en el parage de Alrubi...". LUA: C/7/III/3/1.

[**Altamira** (1637)]. Baserria. LUA: E/4/I/1/3.

[**Altamiraco-azpiya** (1897)]. Lekua. "12º Mojón. (...) Se halla situado a 6 metros del rio Oyarzun en el paraje llamado Altamiraco-azpiya". LUA: C/5/I/1/15.

[**Alcate** (1637). **Alzate** (1767)]. Baserria. [I] LUA: E/4/I/1/3. [II] LUA: A/1/1/2.

[**Alzateco-azpiya** (1847)]. Lekua. "...que para reducir a labrantio un cerrado de playa desde el puntal, hasta la punta de Alzateco-azpiya, y si necesario le fuere utilizarse de alguna parte de piedra y tierra que se halla en la inmediacion del Camino de Alzate...". LUA: C/5/II/1/4.

[**Alzatecogaña** (1886). **Alzateco-Gaña** (1886). **Alzateco-gaña** (1890)]. Lekua. "... la Tejería Mecánica titulada La Merceditas, sita en jurisdiccion de Lezo y término llamado Alzateco-Gaña". [I eta II] LUA: C/5/III/1/10. [III] LUA: C/7/III/3/1.

[**Alzateco-playa** (1880)]. Lekua. LUA.

[**Amandin** (1897)]. Jaizkibel mendiko lekua. "13º Mojón. Sirve de tal un peñasco arenisco que tiene por señal las letras L.P. y una cruz, situado en el paraje llamado Amandin". LUA: C/5/I/1/15.

[**Amasaco chara** (1867)]. Lekua. LUA: C/7/III/1/2.

[**Ambolu** (1945)]. Lekua. LUA: Comp.

[**Amesti** (1945). **Amezti** (1947)]. Baserria. [I] LUA: Comp. [II] LUA: Amill.

[**Amezti-buru** (1898)]. Lekua. LUA: C/5/III/1/10.

[**Amestizabal** (1945)]. Lekua. LUA: Comp.

[**andrecho** (1568). **Vidarte Andreunea** (1640). **Andreonea** (1818)]. Etxea. "la casa de andrecho la diez y seys parte poseela probença de amezqueta d[ic]ho andrecho". "...y asi lo otorgo ante el presente ess[criba]no y testigos en esta casa de Vidarte Andreunea q[ue] es propia mia y sita en este d[ic]ho lugar de Lezo...". [I] ADP: *Secr. Aguinaga, c/9, n° 1.* [II] GPHAO: 2352, *Juanes de Vidarteren testamentua.* [III] LUA: C/2/I/3/1.



Amezti baserria (1997)

[**Andresenea** (1818)]. Etxea. LUA: C/2/I/3/1.

[**Andreseneko-Tolarieta** (1925)]. Etxea. "Que pegante a la fachada NORTE de la finca de su propiedad, de antiguo denominada Andreseneko-Tolarieta, y señalada con el número 32 de la calle Mayor, existe un estrecho camino de bajada desde esta a la playa, de fuerte pendiente y peligroso descenso, que por estas mismas circunstancias no se utiliza de ordinario por el vecindario, máxime disponiendo a muy pocos pasos, contiguo a la fachada SUR de la citada propiedad otro camino más asequible, ancho y cómodo". LUA: C/5/III/1/10.

[**Angelacho-enea** (1945)]. LUA: *Comp.*

[**Anchilastegui** (1762). **Ansillastegui** (1763). **Ancillastegui** (1765). **Anchillastegui** (1766). **Ancilastegui** (1768)]. Lekua. "...en la plantacion de trescientos setenta y quatro arvoles robles, los quales a trasplantado de seis a seis codos en el Concegil nombrado Saroisar, y Anchilastegui...". [I, II, III, IV eta V] LUA: C/5/II/1/2.

[**apayçiarça** (1568). **apayzyarça** (1612). **Apaisiarza** (1876)]. Baserria. "la casa de apayçiarça paga medio fuego poseela myguel de salaberria". "...Apaiciarza, que se llamó Yarza..." (*Isast.*, 94 or.). [I] ADP: *Secr. Aguinaga, c/9, n° 1.* [II] HUA: E/7/II/4/13. [III] LUA: B/6/1/2.

[**apaizciarcaberri** (1644). **Apaiçiarça nueva** (1644). **ApazsciarzaVerria** (1722)]. Baserria. "...Dueño de la Cassa solar de echeveria o ApazsciarzaVerria...". [I eta II] LUA: E/4/I/1/3. [III] EHAD: *Lezo, hildakoen lehenengo liburua.*

[**Apaiçiarza-chiqui** (1818)]. Baserria. LUA: C/2/I/3/1.

[**APayçiarça La Bieja** (1647). **Apaisyarça La bieja** (1650)]. Baserria. [I eta II] LUA: E/4/I/1/3.

[**Arguiñenea** (1818). **Arguiñanea** (1824)]. Etxea. [I] LUA: C/2/I/3/1. [II] LUA: C/7/III/1/2.

[**Arguinenea** (1867). **Arguiñanea** (1876)]. Baserria. [I] LUA: C/7/III/1/2. [II] LUA: B/6/1/2.

[**Arizbacarra** (1827). **Arisbacar** (1945)]. [I] Lekua, [II] baserria. "...p[ar]a la construccion de una Casa que intenta hacer en esta jurisdiccion, cuya piedra ha visto q[u]e existe en el parage nombrado Arizbacarra, o falda de Urunea en el contorno del camino q[u]e dirige a esa villa, y es suficiente para d[ic]ha obra...". [I] LUA: C/5/II/1/4. [II] LUA: *Comp.*

[**Aristiberri** (1945)]. Baserria. *LUA: Comp.*

[**Arquin** (1798). **Arquemon** (1817). **Arquiron** (1859). **Arquirun** (1867)]. [I eta II] Lekua, [III eta IV] baserria. "Ytt[em] ciento diez y seis rr[eale]s satisf[ec]hos a Maria Bap[tis]ta de Yarza p[or] el importe del vino y pan q[u]e se le suministro a la mucha Gente que acudio la noche del dia veinte y dos de Febrero del año ultimo al Partido y Monte Concegil nombrado Arquin a apagar el Yncendio que hubo en el...". "...declaro que en el mes de febrero del p[rese]nte año se han plantado en jurisdiccion de esta Universidad: a saber en el parage llamado de Arquemon propio de ella, y junto al Halechal de Juamartindegui (sic) nobecientos plantios de Arboles...". [I] LUA: C/2/I/3/1. [II] LUA: C/5/II/1/2. [III eta IV] LUA: C/7/III/1/2.

[**Arpide** (1897)]. Lekua. *LUA: C/5/I/1/15.*

[**Arpidenea** (1818)]. Etxea. *LUA: C/2/I/3/1.*

[**Arrarte** (1883 eta 1915)]. Lekua. "...un terreno argomal, situado en el parage llamado de Bordaundia, a la parte opuesta de la regata que baja de Arrarte a Erroteta, termino municipal de esa Universidad de Lezo...". "...la cantera sita en el punto de Arrarte...". [I] LUA: C/7/III/1/2. [II] LUA: C/5/II/1/4.

[**Arrechenea** (1859)]. Baserria. *LUA: C/7/III/1/2.*

[**Arriandia** (1669). **Arriandi** (1859). **Arriaundi** (1884)]. [I] Lekua, [II eta III] baserria. "...Y de Un arroyo ba a Un puesto llamado sorocho, Y de alli a Arriandia...". [I] LUA: E/7/1/2. [II] LUA: C/7/III/1/2. [III] LUA: C/7/III/3/1.

[**arriheder** (1612)]. Baserria. "...Joanes de elete françes casero de la caseria de arriheder en lezo...". *HUA: E/7/II/4/14.*

[**Arrescalleta** (1824). **Arri-escalleta** (1837). **Arriscalleta** (1840). **Arriescalleta** (1859). **Arriescalleta** (1867). **Arrisqueleta** (1876)]. Etxea. [I] LUA: E/5/II/1/1. [II, III, IV eta V] LUA: C/7/III/1/2. [VI] LUA: B/6/1/2.

[**Arriescalleta-lurra** (1945)]. Lekua. *LUA: Comp.*

LANDER ZURUTUZA

HAUR ETA GAZTETXOEN LITERATUR LEHIAKETAK 1996 PRIVATE

Urtero bezala, 1996an Lezoko Udal Liburutegiak haur eta gaztetxoentzat literatur lehiaketak antolatu zituen, herriko ikastetxeen lankidetzarekin. Oro har 188 lan aurkeztu ziren: 157 ipuin eta 31 olerki. Dena dela, gauza bat azpimarratu behar da: alegia, berriro ere partaidetzak gora egin zuen arren bi sari eman gabe geratu ziren, horietara inor aurkeztu ez zelako. Hala, 6-8 urteko haurren mailan 82 ipuin eta 19 olerki aurkeztu ziren, 9-11 urteko gaztetxoeren mailan 75 ipuin eta olerki bakar bat ere ez, eta 12-14 urtekoen mailan ipuin bakar bat ere ez eta 12 olerki.

Jarraian, irabazleen zerrenda eta saritutako lanak argitaratu ditugu.

“III. LOPE ISASTIKOA IPUIN SARIAK” (1996)

- (6-8 urte) **Unai Tolosa Pontesta**: “Martetap triste dago”.
- (9-11 urte) **Lorena Vargas Estevez**: “Benito arkatza”.
- (12-14 urte) EZ ZEN LANIK AURKEZTU.

“III. JON GARBIZU OLERKI SARIAK” (1996)

- (6-8 urte) **Ainhoa Cervera Uranga eta Xabier Viaña Gonzalez**: “Do, re, mi”.
- (9-11 urte) EZ ZEN LANIK AURKEZTU.
- (12-14 urte) **Xabier Dorronsoro Amiano**: “Lagun galdu bati”.



MARTETAP TRISTE DAGO

Bazen behin batean Martetap izeneko martetarra. Marten asperturik zegoen. Egun batean ihes egitea erabaki zuen. Hurrengo goizean bere aitaren espaziuntzia hartu eta esan zuen:

- Lurrera noa!.

Asko ibili eta ibili ondoren Lurrera iritxi zen. Han denak berarekin bildurtu ziren. Etxe batean mutiko bat ikusi zuen. Berarengana joan zen eta galdetu zion:

- Nola duzu izena?

- Ni Iñaki naiz -erantzun zuen mutikoak.

Eta esan zion:

- Iñaki etorri nahi al duzu Martera?

- Bai noski! -Eta hilabete bat pasa zuen martetarrekin.

Martetapek oso ondo pasa zuen Iñakiri planeta erakusten.

UNAI TOLOSA PONTESTA

7 urte



BENITO ARKATZA

Bazen behin herrixka bat, bakarrik zeukan denda bat baina bertan denetik zegoen. Herrixkak Arkizu izena zuen eta 20 etxe zeuzkan. Ortzadar mendiaren magalean zegoen, eta Jon izeneko ikasle bat bizi zen.

Egun batean Jon joan zen dendara eta galdetu zion ea arkatzik bazegoen. Iñaki konkordunak esan zion bat bakarrik geratzen zitzaiola, baina kolorerik gabe zegoen eguzkiak eman ziolako. Mutilak pena zeukan, baina Iñakik esan zion azkena izateagatik erdi-prezioan uzten ziola.

Hurrengo egunean, joan zen eskolara eta arkatza atera zuenean denak farrez hasi ziren. Benito arkatzak lagundu zion, eta a ze sorpresa...!

Inoiz baino hobeto idazten zuen. Denbora asko igaro baino lehen bera zen onena idazten. Arratsalde hortan, euria ari zuen, eta motxila oso ondo itxi gabe zeukanez arkatza putzuzulo batera erori zitzaion, eta Jon ez zen konturatu, eta Benito arkatza negarrez hasi zen. Poeta zahar bat hortik pasa zen, hartu zuen, eta etxean tximiniaren ondoan utzi zuen lehortzen.

Beti Benito arkatzarekin idazten zuen, baina gero eta gehiago ari zen gastatzen. Egun batean behatzekin ere eutsi ezin zuenez pena handiz bota zuen tximiniara. Baina lehena-go idatzi zuen honako olerki polit hau:

*“Pena eman dit zu joan zarelako,
bainan itxoin pixka bat hor, zeruan,
laister joango naizelako.”*

LORENA VARGAS ESTEVEZ

11 urte



DO, RE, MI

Do, re, mi,
Antton motots haundi.

Mi, re, do,
irakurtzen dago.

Do, re, mi,
soinu polit hori.


Mi, re, do,
pianoa jotzen nago.



AINHOA CERVERA URANGA eta XABIER VIAÑA GONZALEZ


7 urte

LAGUN GALDU BATI



Hitaz oroituz
begiak zaizkit malkotu.
Begiak malkotuz
errealitatetik ezin askatu.
Errealitatetik ezin askatuz
bizitakoa ezin ahaztu.
Nere buruari ibili naiz galdetuz,
nora joan haiz? zergaitik?
Hi beti gogoratuko haut
lagun jator zintzoa
betirako behar haut.

XABIER DORRONSORO AMIANO
13 urte




BERTSOA

KORRIKA

Oinak badoaz
tipi-tapa helmugarantz
Arantzazutik
Bilbora.
Lekukoa eskuz-esku
badijoa,
haurrak, gazteak, helduak...
denak batera!!

Ane Mugarza.
11 urte



BALOIA

Mina egiten didate
ostikoka hastean.
Aspertu egiten naiz
armairuan gordetzean.
Ez naute elikatzen
gose naizenean.
Ongi pasatzen dut
parkean nagoenean.


URTAROAK

Zelaiak lorez jazten dira udaberian
Hondartzan beltzaran
jartzen gara udan...
Txoriek Afrikaruntz alde egiten dute
udazkenean.
Eta kaleak txuriz estaltzen ditu
elurrak neguan.

Amona besaulkian,
katua honen belaunean
batak besteari
beroa eman nahiean.

Ikasi duenetik
Jon dago kantari,
bere maite kuttuna
June ederrari.
Handitan izan nahi du
bera abeslari
asko kontsolatzeko
bere andreari.

Ane Mugarza
11 urte



ZOROA ETA ZOZOA

Soro zabal batean,
zoro bat zebilen
zoroak zozoari segitu zion
zozoak zoroa zoroetxera erman zuen
eta han zoroa
zoro zoroagoekin bizi izan zen.

Aitor Santos

11 urte

MUNDUA

Munduan, kotxeak,
kotxeak, karreteran,
karreteran, akzioa,
akzioa, pelikuletan,
pelikulak Hollywooden,
Hollywooden aktoreak,
aktoreetan dirua eta
dirua munduan.

Iurgi Urtizberea

12 urte

OHARRA:

LEZO Herri Eskolako Euskara Batzordea

Jakina denez, Lezo Herri Eskolan B eta D ereduetan matrikulaturik dauzkagu ikasleak. Hala ere gure ikastetxean murgiltze prozesuan sartuta gaude, B ereduan ere ikasketak guztiak euskaraz jorratzen direla. Irakasleak eta eskolan lan egiten duten gainontzeko langileak, erabat euskaldunak direla esan daiteke eskolako giroa euskalduna dugularik.

Euskara sustatzeko ekintza ugari antolatzen dugu denok euskaraz bizi gaituzten, eta lan honetan murgilduta gaude. Bestaldetik, euskararen egoera nola dagoen gure eskolan ebaluatzen ari gara, baita gure ikasleek parte hartzen duten herriko ekintzetan ere. Inkesta bat prestatzen ari gara, egoera hau hobeto ezagutzeko, ondorioak ateratzeko eta gure lana biderkatzeko behar diren ekintzak antolatzen.



Agur Joxiñazio
joan hitzan
etorri hitzaigun bezala,
azkar,
zirt-zart batean.

Hi hil hitzanez geroztik
denbora pasatzen ari zaiguk,
denbora aurrera ziek,
baina oraindik ezin diagu sinistu
gure artetik joan haizela,
Errenteriako Arkaitz-enean
ez dukela truk berriro joko.

Hirekin batera gauza asko
joan dittuk betiko,
uste ustel franko erori zaizkiguk.
Ikusten hindugun gazte,
sasoitsu, indartsu,...
bizitzeko grinez beterik,
eta uste genin
betirako hitzala eta ginala.

Hire heriotz lazgarriaz
ulertu diagu
ez garela deus,
gure biziak ez duela
inxtant bakar bat ere
irauten,
eta nigarrari ekin zioagu
laguna galdu dugulakoz
eta biziaren laburtasunaren
berri argia eduki dugulakoz.

Oroitzen haugu Lete,
oroitzen haugu hitzan bezala,
indartsu, sendo
eta gizatasunez beterik.

Agur Joxiñazio
agur Leteko azken artzai hori,
agur Iñalurtako biztanle zintzo,
Agur, egun haundiararte!!!

JOSEBA


ELIZA ZAHARRA

Zikinak ditu paretak
herriko eliza zaharrak
eta hutsa barrua
irudiz josia.

Gurutze haundia du teilatuan
herriko eliza zaharrak
lau haizetara beso-zabalik
herritarron gurutzea.

Hil-kanpainak agonian
deusa joka
eliza zaharrean.

Munttar



“ZELAIBELTZETAKO AKELARREA”

- Baietz mutil akelarreak oraindik ospatzen direla! -Honela zioen parrandako gau hartan ezagututako mutil berriak- Baietz mutil, baietz!

- Bai zera, Santo Kristoren plazan! etzakela adarra jo mesedez! joan hadi beste baten-gana holako kontu zaharrekin!

- Beizak, sinistu nahi baduk, etor hadi bihar gaueko hamabietan Tiñelu mendi tontorrera, han egongo baigaittuk hire zain.

- Bale ba, bihar joango nak Jaizkibelera hire akelarre ospetsuak ikustera, ea sorgin eder eta lirain batekin ligatzen ote dudan. Bihar arte ba!

- Bai bihar arte lagun!

Holako solasaldia eta gero nire etxera abiatu nintzen nire lagun berria “Aizpea” ostatuan, eztarria freskatuz, gelditzen zen bitartean. Hurrengo egunean gaueko akelarre-kontua burutik ezin kendurikan nenen, eta nire neskalagunari deitu nion gertatutakoa kontatzeko. Lupe ni baino siniskorragoa izanik, ixtorioa ezagutzera koan izutu egin zen, eta ez joateko erregutu zidan. Baina azkenan, erabakia hartuta nuela ikustean, nirekin joatea erabaki zuen.



Lagun hark zioenez akelarreak ospatu egiten ziren oraindik.


Gaueko hamarretan Lezoko Santo Kristoren plazan dagoen “Aizpea” izeneko tabernan bildu ginen, eta kafea eta ttotta hartuz hizketan egon ginen gaueko hamaika t’erdiak arte. Orduan, plazan bertan aparkaturik genuen kotxea hartuz, Jaizkibelerantz abiatu ginen Kale Nagusian barrena. Jaizkibelera daraman bidegurutzean gineal gora aldera oinez zihoazen bi neska ikusi genituen. Kotxea gelditu eta gurekin joateko gonbidapena egin genien, baita beraiek berehalaxe onartu ere. Neska gazteak ziren, baina arrunt ezezagunak guretzat, ez baitziren ez Lezokoak eta ez bailarakoak. Hizketan hasi orduko, euren nafar hizkeraz Sunbilatik zetozela Zelaibeltzetako akelarrean parte hartzeko aitortu

ziguten. Hortik aurrera ez zuten txintik ere esan. Asko zirikatu ondoren beuren izenak ezagutu genituen: gazteenak Gaxuxa izena zuen eta besteak Maddi. Bide osoan zehar ez zuten besterik aitatu ere egin. Hamabiak bost gutxi ziren kotxea bide bazterrean aparkatu genuenean Tiñelura daraman bidezigorra hartzeko. Gure linternek emandako argi urri-horixkari jarraituz, itsu-mitsuka genbiltzan bidea igarri nahian. Zuhaitz eta harkaitzek izugarritzok mamuak ziruditen, eta urrats berri bakoitzean izu berria hartzen genuen.

Honela jarraitu genuen argi ttiki leun bat ikusi arte. Hurbildu eta mozorrotutako gizon bat zela ikusi ahal izan genuen. Guregana etorritz honela esan zigun: "Bazen ordua, zuek baitzeazte azkenak, eta danok zuen zain baikinen!" Ondoren bere atzetikan segitzeko agindu zigun. Guk horrela egin genuen eta bidezigor batetik abiatuz, laster batean zelai zabal

batera iritsi ginen. Zelaiko erdigunean su haundi bat zegoen eta bere aurrean harriz egindako aldare modukoa. Lurrean eserita hogeitau lagun zeuden, danak larru bizitan, bai neskak eta bai mutilak. Burua ahuntz, behor eta ardi kaxkezurrez ezkututzen zutelarik. Emandako agindu bati jarraituz, guk ere biluztu egin behar izan genuen. Lupek ez zuen nahi eta purrustadaka hasi zen gurekin kotxean etorritako bi neska sunbildarrekin. Gauza itsusia jartzen hasita zegoen. Horietako gizon batzuk ganibeta luzeaz armaturik zeuden, eta ni guztiz bildurturik. Horregatik ez nuen deus ere egin, bi mutilen artean Lupe indarka biluztu zutenean. Azkenean Lupek amore eman behar izan zuen, eta ixilikan nire ondoan eseri zen. Horrela egon ginen hamar bat minutu, gure inguruan eserita zeuden beste guztiek guretzako guztiz ezezagunak ziren kantzak abesteari ekiten zioten bitartean. Ondoren, ilunpeetatik aker-kaxkezur haundi batez hornituriko dantzaria atera zen, dantza bortitzei ekinez. Bi txistularik laguntzen zioten erritmoa emanaz, eta txalaparta baten soinua betetzen zuen gau iluna. Dantzaria biluzik zegoen, eta zintzilik zeramana ikusita gizonzkoa zela igarri ahal izan genuen. Lepotik zintzilik zilarrezko lauburu bat zeraman jantzi bakar gisa, eta eskubiko eskuan makil luze bat. Makilaz burua ikuitzen zigun dantzan ari zen bitartean, eta guztiok dantzatzeko seinalea izan zen.

Beranduago aker beltz bat ipini zuten su aurreko aldarean, eta banan banan uzkia musukatu behar izan genion. Hura nazka! baina egin beharrekoa dantzari zoro haiek ez bagenituen haserretu nahi. Aker-buruaz jantzitakoak ukendu moduko zerbait prestatu zuen pertza zabal batean, eta gero edateko eman zigun. Berdexka eta lirdintsua zen, higuigarria bistarako, baina bere baitan pattarraren indarra zuen. Bitan edo hirutan edan



Euskal mixterioek bizirik diraute, euskal arimak bizirik dirauen neurri berean.

*Harrizko aldare
gainean aker
beltz bat ipini
zuten. Denak
ipurtzuloan
musu bana
eman ondoren,
hasiera eman
zitzaion
akelarreari.*



genuen, dantza bortitz hura eten gabe. Zegoeneko ez ginen izaturik, edari bitxi hark izu guztiak estaltzen baitzituen. Txalaparta ez zen ixiltzen, txistuek gero eta zorrotzago jotzen zuten, eta su inguruan egiten ari ginen dantza gero eta azkarragoa, gero eta zoroagoa,... dana jira-biraka zebilen, baita gure buruak ere. Une zehatz hortan nire gorputzetik atera nintzen eta hegaka gailurretako dorreetaraino abiatu nintzen, Lupek gauza bera egin zuen eta nirekin batera, Jaizkibel gainetik hegan egin zuen. Zerutik ikusten genituen Jaizkibeleko dorreak eta gailurrak, baita inguruetako herriak ere: Hondarribia, Hendaia, Irun, Orereta, Pasaia,... Ezinezkoa dirudi, baina hala izan zen edo gutxienez honela iruditu zitzaigun guri. Ilargia eta izarrak hurbil hurbilak genituen, eta hodeiek inguratzen gintuzten. Kotoizkoak ziruditen. Zenbat denbora egon ginen horrela hegaka? Ez dakit egia esan, denboraren sentidua arrunt galdua baikenuen, denboraren sentidua eta baita beste-lako sentidu guztiak ere. Hura oso ederra zen, hegaztien antzera baikenbiltzan, hegaka. Pixarka pixarka eta hegalaldi borobilak eginez, jeisten hasi ginen. Zurrumbilo haren erdian gizon-akerra zegoen, eta inguruan beste guztiak. Txalapatark etengabeki jotzen zuen, txistuek zoratu egiten zuten beuren soinuaz, eta dantzariak dantzan jarraitzen zuten euren gorputzak bortizki mugituz. Batzuk erori egiten ziren, korrika altxatzeko, eta besteak lurrean gelditzen ziren, ezin altxatuz. Dana jira-biraka zebilen, irudiak eta ametsak ilunpetatik irtendako laino ilun eta trinko batez estaltzen ziren, eta gure buruak..., gure buruak ez zeuden lepo gainean, laino artean baizik.

Hurrengo goizean handikan zebilen artzain batek gure gorputz biluziak aurkitu zituen belar gainean. Gu konorterik gabe geunden, lo zerraldo batean murgildurik. Gure ondoran itzalitako su baten errautsak omen zeuden. urteak igaro dira, Lupe eta biok ezkondata gaude, alaba bat dugu,... eta oraindik ez dakigu zer pentsa gau hartan Zelaibeltzetako soroan gertatu zitzaigunaz. Sarritan azaldu gara inguru hartatik erantzun bat bilatu nahian, baina alperrik. Gaur, burutik ezin kendurikan daukadan dana honen berri ematea erabaki dut, eta hortarako idatzi dizuet aitorpen moduko eskutitz hau. Ez dakit zer irudituko zaizuen, nik ez baitakit oraindik zer iruditzen zaidan, ezta Lupek ere. Baina egia hala gezurra izan, honelaxe gertatu zitzaigun duela lau urte, maiatzeko gau batean, Jaizkibeleko Zelaibeltzeta izeneko belarsoro ederrean.

Iñaxio eta Lupe

G.A.LTZAILEA

Tarttalok «kristauak» ezagutzeko gogo aspalditik zuen, eta hal zuen guztietan bere amari aitaren, Tartalo zahar eta «maltzurra»-ren, ipuina edo historia kontatzeko eskatzen zion. Eta bere amak penetan eta malko artean kontatzen zion bere seme ezjakin eta maiteari. Tarttalok ulertzen zuen batzuetan kontatu nahi ez izatea, bere amarentzat gogorra izango baitzela ulertzen zuelako. Baina zergaitik bota zuen kristauak Tartalo osinera, ez al zuen kristauak gauza bera egingo Tartalorekin bere etxean harrapatu al izan balu? Tarttalok bazekien jentilak indartsuak, haundiak eta narratsak zirela kristauen esanetan. Baina kristauak txikiak eta ahulak ziren, baina txikiak eta ahulak izateaz aparte argiak ziren, eta Tarttalok hori asko miresten zuen. Berari behintzat ez litzaiokeen bururatuko hatza moztea bere amak txikitan lagun artera jolastera ez jeisteko eta non zegoen jakiteko jartzen zion eraztunaz askatzeko.

Gainera «kristauak» ezagutzeko gogoa ugaritzen ari zitzaion Tarttalori azken aldian berdez jantziriko eta aurpegi arrarozko kristauak bere taberna gustokoenaren (Aiako Harrietakoa) inguruan buelta dexente ematen ari zirela ikustean. Gainera kristau hauek ez ziren txikitako kristauak bezalakoak, normala baino txikiagoak, beltzagoak, ahulagoak eta abar baitziren. Noizbehinka ikusten zituen lehengo kristauak bezalakoak, aurpegi ezagunekin, eta aurrekoak baino indartsuagoak. Gainera kristau berri hauek, bi kristau motak, euskalki arraro batez hitzegiten zuten, jentilek ez zuten tutik ere ulertzen.

Jentil zaharrek sasi-euskera bat zela eta kristau txikian ez zirela euskaldunak eta beraien kultura inposatu zuten etorkinak zirela zioten. Jentil zaharrek asko zekiten gure kultura zaharrari buruz eta Tarttalori asko gustatzen zitzaion neguko sutondoan eta agureen istorio eta historiak entzutea.

Jentilak oso kontuz ibiltzen ziren «kristauak» ez ikusteko eta Tarttalo ere kasu egiten zion ohar horri. Izan ere jentilek asko sufritu dute «kristauon» erruz. Baina behin Tarttalo eta bere kide jentilak ohizko tabernetan txikitoak hartzen ari zirela, berdez jantziriko kristautxo txikiak ikusi zituzten beste behin ere beren sudur txikia edozein lekutan sartzen. Ez zieten kasu egin eta beste taberna batera joan ziren, Aiako Harrietakora. Hura bai taberna ederra Tarttaloren ustez. Tabernariak «kristauekin» harremana zuen eta hauen musika jartzen zuen, euskal rock musika.

Baina halako batean ate izkutuaren atzean soinu bitxi bat entzun zuten.

- Tar, tar, tar, tartar, tartar- Berdez jantziriko kristauak ziren elkarren artean hitz egiten.

Baina zer nahi zuten? Azkar jakin zuten jentilek, atea kristoren danbateko batez bota eta makil beltz zentzubako batzuekin seinalatzen zituzten.

- Tar tar tar tar!!- berriro ere kristauek. Baina jentilek ez zieten ulertu eta harridura aurpegiz begiratzen zieten. Baina kristauek ekin eta ekin eta bere makiletatik sua atera arazi zuten. Jentilak banan banan erori ziren lurrera, Ttarttalo ezik, barraren atzean gorde baitzen arriskua usaindu orduko.

Makil beldurgarri haietatik sua ateratzen ez zela ikusirik Ttarttalok barraren gainetik burua atera zuen. Eta hara non ikusi zuen kristau bat bere makila bi begien erdian jarri ziola.

- Tar tar tar!- Esan zion. Baina Ttarttalok ez zion ulertu.

- Sentitzen diat baina ez diat ulertzen- Esan zion bere betiko euskaraz inoxente inoxente.

Kristauari ez gustatu eta makilkada bat emanaz bere amaren erretolika bat gogorarazten zion eta ulertu ez zuen zerbait esan zion. Makilkadak ez zion minik egin Ttarttalori, sasoiz beteriko jentila baitzen badazpada ere geldirik segi zuen. Oraindik gogoan bait zuen bere lagunei gertaturikoa.

Kristau horietariko bat bere atzera joan eta kate zixtrin bat jarri zion eskuetan. Apurtzeko gogoia jarri zitzaion baina makilen beldur ez zuen egin.


Bultzada artean metal arrarozko kaxa batean sartu ziren denak eta mendian zehar joan ziren "kristauen" herri eta hiriak paasatuaz. Bapatean gelditu eta ikur kristauez idatziriko kartel bat ikusi zuen. Ez zuen ikur kristauez idatzirikoa asko ulertu baina INTXAURRONDO jartzen zuela iruditu zitzaion. "Zein ongi, intxaurrak jango ditugu!" pentsatu zuen pozez beterik gure lagunak, baina pozarekin batera harridura, non daude intxaurrondoak?

Kaxatik jeitsi arazi eta harriz eginiko etxe arraro batean sartu ziren.

- Hor barruan egongo dira intxaurrak bildurik- Pentsatu zuen Ttarttalo ezjakinak.

Baina ez gela ilun eta heze batean sartu zuten Ttarttalo eta han utzi zuten bakar bakarrik.

Egun batzuk pasa ziren berriro ere kristauak jentilarengana etorri ziren arte. Far artean etorri ziren kristauak irrifarrarekin etorri baitziren, berriro ere kateak jarri zizkioten. Baina



honetan ez ziren horrekin konformatu eta zaku bat jarri zioten buruan. Beste gela batera eramanean, zakua kendu eta urez beteriko ontzi bat ikusi zuen, tamaina guzietako makilak ere bai eta kuprezko hari bi azkenik.

- Zertarako guzi hau? Eta intxaurrak?- Galdetu zuen Ttarttalok, eta hori esaten bukatu zuenean bera bezalako jentil batentzat ezer ez zen baina kristau batentzat kristorena izango zen "paliza" eman zioten.

Ttarttalok ulertu zuen zer esan nahi zioten eta ixilik eta geldirik geratu zen. Horren segidan enkaputxaturiko kristau bat hurbildu eta doinu goxoan berak ulertu ez zuen zerbait esan zion, baina Ttarttalok eskarmentua jaso ondoren, ongi ulertu baitzuen, ixilik jarraitu zuen. Hori ikusirik kristauak bere ximetatik heldu eta urez beteriko ontzian sartu zion burua, Ttarttalo bildurturik oihuka eta zalapartaka hasi zen bere izu eta minetik askatzeko. Ttarttaloren indarra beretzat gehiegi zela ikusirik kristauak laguntza eskatu zuen, eta hor joan zitzaizkion besteak laguntzera. Ttarttalok ezin zuela ikusirik etsi zuen eta uraren epeltasuna gozatzeari ekin, handik denbora atera zuten berriro ere Ttarttalo bere zorigaitzetik. Baina kristauak bereari jarraitzen zioten, eta Ttarttalok ere bai, ez baitzuen tutik ere ulertzen.

Isiltasunak apur batean segi zuen, Kristauek beren artean hitz egiteari ekin zioten arte. Berriro Ttarttalorengana itzuli, soinekoak kendu eta kuprezko bi hariak potroetan lotu zitzioten, hari hauen beste puntak bi zuloetan sartu eta Ttarttalok hor geratuko zenaren sentazioa eduki zuen.

Baina gauza ez zen hor geratu zeren ez bait zioten hori behin bakarrik egin, ezta bakarrik ere, urezko putzuan sartu zuten berriro hariekin batera eta berriro lehengoko sentazioak hartu zion gorputza.

Baina Ttarttalok mutu jarraitzen zuen ez zekiela zer egin. Hitz eginez gero gorriak ikusi eta ixilik egon ezkerre gehiago. Hor bertan ziplo hilda erori nahi zuen. Baina norbaitek ez zuen nahi, hori pentsatzen zuen behintzat Ttarttalok.

Ez zuela askozaz gehiago iraungo bazekien, bere ordua laister zetorrela bazekien, kristauek hildako aita semeak berriro elkartuko zirela bazekien. Baina Ttarttalok zutik zirauen. Horiexek ziren Ttarttaloren azken pentsamenduak, umez beteriko ontzian mal-koen artean bere guraso, lagun, familiarte eta lurrei adioa esaten zion bitartean.

-¡S'a muerto!

- Pos ke se joda, etxarlo a la basura y no dejaz ni rastro de el.

- ¡SI MIGENERAL!

Arkaitz Arozena Salaberria

